

**hh**  
hik hasi

**Eskolak itxita, laguntza-sareak irekita  
COVID-19 eta adimen emozionala  
Hamabost iradokizun konfinamenduko  
online irakaskuntza hobetzeko  
Kristina Goñi eta 0-6 aditu titulua  
Eskola-kirola mistoa ala berezia?  
Birkite Alonso**

25




**HIK HASIK 25 URTE**





**BENETAKO MUNSTROAK GURE ARTEAN!  
ARMA ZAITEZ EZAGUTZAZ ETA LAGUNDU  
KREATURA GAIZTO HORIEK MENDERATZEN.**



Liburuaren amaieran fitxa guztiak batera aurkituko dituzu munstro bakoitza zerk makaltzen eta suspertzen duen konparatzeko.





# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ESKOLA ITXITA, LAGUNTZA-SAREAK IREKITA

Beste hilabete batez konfinamenduak ikastetxeak itxita mantendu ditu eta ondorioz ikasleak zein irakasleak etxetik ari dira jarraitzen ikaske-ta-prozesuarekin. Denak dira jakitun ez dela gauza bera, eta laguntza beharrean aurkitu dira, batik bat ikasleak. Borondate handiz sortu dira laguntza-sareak eta ongi funtzionatzen ari dira.

ELKARRIZKETA / 14

## A. URBE, X. SARASUA, I. MADARIAGA

25 urte bete dira *hik hasi* euskal heziketarako aldizkariaren 0. zenbakia argitaratu zela. 1995eko maiatzean hasi zuten ibilbidea bai aldizkariak eta baita Hik Hasi proiektu osoak ere. Hastapeneko garaian zein ibilbi-de osoaren lekuko izan dira hiru elkarrizketatuak. Sorrerako premiak, beharrak eta gogoak, ibilbideko erronkak, zailtasunak eta indarra, eta aurrera begirako aukerak azpimarratu dituzte solasaldian zehar.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpirozt eta Ainara Gorostitzu.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-04-22).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Euskal hezkuntza komunitateak erakutsi duen ardurari eta gaitasunari erantzutea dagokie administrazioei

8 GAI NAGUSIA

Eskolak itxita, laguntza-sareak irekita

14 ELKARRIZKETA

A. URBE, X. SARASUA, I. MADARIAGA

“Hik Hasi heldu egin da, 25 urte ditu, jendeak aintzat hartzen du eta hori errespetutik landutako uzta da”

22 ESPERIENTZIAK 1

COVID-19a eta itxialdia opari bihurtzeko aukera

26 EKARPENAK 1

15 iradokizun konfinamenduko online irakaskuntza hobetzeko

29 EKARPENAK 2

“Ikuspegi teknopedagogiko kritikoa” eraikiz

32 EKARPENAK 3

Kristina Goñi: 0-6 aditu titulua

36 GALDEIDAZU

I. LUZURIAGA, M. ARANBURU  
Hezkidetzaren mesedetan, eskola-kirola mistoa ala berezia?

39 ARGITALPENAK



40 PROPOSAMENA

Emariak karta-jokoa

42 ATZEKO ATETIK

Birkite Alonso

Haurren konponbideak



KONFINAMENDUAREN KONTRAKO PROTOKOLOA:

*Eskolako lagunak mire familia dira*

ADOPZIO ZERRENDA:

June	✓	Martin	✓
		Ainara	

# Euskal hezkuntza komunitateak erakutsi duen ardurari eta gaitasunari erantzutea dagokie administrazioei

## editoriala

HEZKUNTZAN EZIN DA INPROBISATU, HEZKUNTZA GAI GARRANTZITSUEGIA DA GOIZETIK GAUERA INPROBISATZEKO. BALIA DEZAGUN KRISIA ESKOLA HOBETZEKO, ETA EZ MURRIZTEKO ETA OKERTZEKO.

**E**gun batetik bestera ikastetxeak itxi eta irakasleek, familien laguntzarekin, eskolak ematen jarraitu zuten. Goizetik gauera berrasmatu behar izan zuten haurrak hezten jarraitzeko lana. Eta ikaragarriko gaitasuna erakutsi dute hezitzaileek. Azpiegiturak, baliabideak, metodologiak, harremanak, interakzioak... egoerak guztiz alderantzikatu direlarik ere, egokitze gaitasun ikaragarria izan dute, materiak eta edukiak ikasleengana iristeko ez ezik, haurrak eta nerabeak zaintzeko baliabideak asmatu dituzte, hasieratik hezitzaileen eta ikastetxeen kezka izan baita ikasle guztiengana iristea, eta horretarako baliabideak jartzea, bestea beste, sareak sortzea, aldizkari honetako gai nagusian jaso dugun eran. Haatik, lan hori guztia, zirkular bidez jasotako presio hitzpean egin behar izan dute irakasleek, administrazioetatik laguntza, babes eta baliabide gehien behar zen garaian, hitzek presio egin dute.

Meet, Hangouts, WhatsApp, Zoom, Jitsi, Skype, telefono-dei, fotokopia... zailtasunak zailtasun, hartu diote tamaina erronkari. Baina administrazioek data ezarri dute eskolak irekitzen hasteko, maiatzaren 11 Ipar Euskal Herrian eta maiatzaren 18a Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Haatik, administrazioei esaldia amaitzea falta zaie, noiz badakigu, baina, nola? Nola itzuli behar dira haurrak eskolara? Eta nola hezitzaileak? Zein baldintzatan? Zein baliabideekin? Nolako eskolara?

Irakasle, zuzendaritza eta sindikatuek bat egin dute Hego zein Ipar Euskal Herrian planifikazio eta baliabide falta salatzeke: Haur eta



hezitzaileen segurtasuna eta osasuna bermatu ahal izateko baliabideak, zehaztasunak, gogoeta partekatutak eta planifikazioa behar dira. Ez da inprobisatzeko momentua. Administrazioek erantzun egin behar diote euskal hezkuntza komunitateak, eta baita haurrek eta familiek ere, erakutsi duten ardurari, ahaleginari eta gaitasunari ere.

Bi hilabete oso izan dituzte administrazioek eskolen irekieran pentsatzen hasteko. COVID-19aren ondorengo eskola pentsatu egin behar da, ez baita berdina izango. Ezin da inprobisatu. Eta partekatu beharra dago, pentsamenduak, asmoak eta erabakiak hezkuntza komunitatearekin partekatu behar dira, eragile guztiak aintzat hartuz. Balia dezagun krisia eskola hobetzeko, eta ez murrizteko, okertzeko, arrakalak handitzeko, eta are gutxiago haurren eta hezitzaileen osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzeko.

Hobetzeko eginahal horretan, ekarpen bat egin nahian sortu dugu HIK HASI laborategia, inprobisaziotan ez erortzeko, krisia eskola hobetzeko baliatzeko. 25 urtez euskal hezkuntza komunitateari ekarpena egiteko ahalegina egin du HIK HASIk. Elkarrekin hausnartzeko, partekatzeke eta eraikitzeke premia zegoelako sortu zen, eta hori dena aurrera ateratzeko gogoia, indarra, borondatea eta ausardia zegoelako, elkarriketa nagusiko lekukoek kontaktzen duten moduan. 0. zenbakia atera zela 25 urte bete direnean — 1995eko maiatzean argitaratu zen —, ekarpenak egiten jarraitzen du HIK HASIk eta bide horretan urrats bat gehiago da laborategi hau.

**“Etorkizunean aurkikuntzak egin behar dituen jendea prestatzeaz arduratu behar gara orain”**

Pedro Miguel Etxenike



# Sustraietatik ametsetara

**Pertsonaren nortasunaren eraikuntzan hain garrantzitsua den 0-6 etapan bidelagun diren hezitzaileentzako aditu titulua, zaintzan eta pedagogia eraldatzaileetan espezialista**

### **Nori zuzendua?**

Haurraren zaintzan eta heziketan diharduten hezitzaileei, eta baita haurraren garapena ongi ezagutu nahi duten erizain, psikologo, psikoterapeuta, aisialdiko hezitzaile nahiz teknikariei ere.

### **Zer eskaintzen da?**

- Bi urteko formazioa (130 eta 127ordu) eta aditu titulu homologatua.
- Edo banakako titulua: 0-6 etapako aditu titulua zaintzako espezialitatea 130 ordu edo 0-6 etapako aditu titulua pedagogia eraldatzaileetako espezialitatea 127 ordu.
- Euskal Herriko nahiz atzerriko profesionalekin (Pikler-Loczy institutua, Reggio Emiliako eskolak, Kataluniako Bressol eskolak, Heike Freire...) formazio presentziala.
- Zentroetara formazio-bisitak (Gasteizko Aiurri Montessori, Geroa Waldorf eskola, Baztan haur-eskola...).

### *Lehen urtea: Zaintzaren garrantzia*

**Formazioaren koordinatzaile pedagogikoa:**

**Hik Hasi**

**Formazio pertsonalaren koordinatzailea:**

**Alvaro Beñaran**

#### **Nondik norakoak:**

Haurra ongi zaintzea funtsezkoa da haur hori ongi sentitu dadin. Ongizateak emango dio segurtasuna, bere burua osasuntsu eraikitzeke hain garrantzitsua den segurtasuna. Beraz, haur txikiaren ondoan dagoen helduaren egitekoa ikaragarri garrantzitsua da, sinplea bezain konplexua baita haur txikia zaintzea.

**Emmi Pikler** pediatria hungariarrak ekarpen ezinbestekoa egin zuen haurraren zainketa-lanei dagokionez. Loia, higiena, pardel-aldaketa, jatorduak, esfinterren kontrola... ongi zaintzearen garrantzia nabarmendu zuen batetik Piklerrek, eta horrekin batera, haurraren gorputzaren garapena eta haren mugimenduaren eboluzioa zaintzea eta aukerak ematearen garrantzia nabarmendu zituen.

Haurraren zaintzaren garrantziari eskainiko diogun ikasturte honetan Emmi Piklerren ekarpenak izango

dira formazioaren zutabe nagusietako bat. Beste zutabearen ardatza heldua izango da. Haurrarekin lan egiten duen profesionalaren zainketa ere ezinbestekoa baita. Helduaren egoera eta jarrerari jarraipena egingo zaio formazio pertsonalean Alvaro Beñaranekin.

#### **Landuko diren edukiak eta balioak:**

- Zaintza-uneak: loa, jatorduak, pardel-aldaketa...
- Haurraren mugimendu autonomoa
- Sozializazio baketsua
- Hazkuntzari buruzko paradigmak

#### **Irakasleak**

- Xabier Tapia, psikologo klinikoa
- Juanjo Quintela, Emmi Pliker pedagogian aditua
- Pikler Loczy institutuko hezitzaile Jutka Kelemen
- Montse Fabres, haur eskoletako aholkulari kataluniarra
- Susana Martinez, Eskurtze eskolako irakaslea.
- Sonia Kliass, Waldorf eta Pikler pedagogien aditu kataluniarra
- Alvaro Beñaran, psikomotrizista eta UNEDeko Luzaroko kidea

## Bigarren urtea: Pedagogia eraldatzaileak

**Formazioaren koordinatzaile pedagogikoa:**  
**Kristina Goñi**  
**Formazio pertsonalaren koordinatzailea:**  
**Alvaro Beñaran**

Zaintzari eskainitako lehen urteko formazioaren osagarri moduan egin liteke, edo formazio-beregain gisa, urtebeteko aditu-titulua eskuratzeko.

### **Nondik norakoak:**

0-6 urte bitartean pertsonaren nortasunaren zutabeak ezartzen dira, eta haren bidelagun izango den hezitzaileak pedagogia berritzaileen laguntzarekin haur bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan laguntzeko tresna ugari izango ditu. Ikastaro honetan ezagutara-ziko diren pedagogiek gauza bat daukate komuneak: haurra erdigunean jartzen dute, eta banako gisa, haren beharrei eta erritmoei erreparatu, loratzeko baliabideak eskaintzen dizkiete.

Hezitzaileak haurra zainduko badu, ordea, bere burua ongi ezagutu behar du, eta beraz, bere burua zaindu behar du. Horretarako, bigarren urte honetan ere formazio pertsonala egingo dute hezitzaileek Alvaro Beñaranekin.

### **Landuko diren pedagogia korronteak eta autoreak:**

- Loris Malaguzzi eta Italiako Reggio Emiliako eskolak
- Maria Montessori
- Mauricio eta Rebeca Wild
- Waldorf pedagogia (Rudolf Steiner)

### **Landuko diren balioak:**

- Familiekin harremanak (Kataluniako Bressol haur-eskoletako esperientzia oinarriturik)
- Naturaren garrantzia (Heike Freirerekin)
- Haurren autonomia, askatasuna eta mugak
- Emozioen kudeaketa pedagogia sistemikotik

### **Irakasleak:**

- Alfredo Hoyuelos, Loris Malaguzzi pedagogian aditua
- Edurne Lekunberri eta Gari Torregrosa, Iruñeko Udal Haur Eskoletako zuzendariak
- Heike Freire, pedagogia berdeetan aditua
- Kristina Goñi
- Quite Martinez eta Eva Querol
- Miren Camison

### **Ikasturtean zehar egingo diren bisitak:**

- Waldorf Geroa eskolara bisita: Rudolf Steiner
- Aiurri Montessori eskolara bisita
- Baztan haur-eskola

- Prezioa                    -2 ikasturteak: **2.500 euro**  
                                  -1. ikasturtea soilik: **1.450 euro**  
                                  -2. ikasturtea soilik: **1.450 euro**

### **\*OHARRAK:**

Kontrakorik ezean, saio guztiak Donostiako EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko 2. eraikinean izango dira (Antigua auzoan - Oñati plaza, 2)  
- Egun osoko saioetan elkarrekin bazkalduko dugu erai-kineko kafetegian.  
- Goizean hamaiketako ematen da eta arratsaldetan merienda.







Beste hilabete batez konfinamenduak ikastetxeak itxita mantendu ditu. Ondorioz, ikasle asko online ari dira eskolak jasotzen eta lanak eskuratzen, nor bere etxetik, bere ordenagailutik, pantailaren beste aldetik, eta ez da gauza bera. Denak dira horren jakitun, ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Informazioa eta interakzioa bermatzeko ekilibrista lanak egiten ari dira guztiak eta egoera eta premia berri horietatik sortu dira laguntza-sareak. Modu batera edo bestera, Euskal Herri osoan laguntza-sareak sortzen ari dira eta horietako hiru esperientzia bildu dira hemen: Donostiako Axular lizeoan ikasle ohiak ari dira ikasleei laguntzen, Etxarri-Aranatzeko Andra Mari ikastolan praktiketako ikasle ohiak eta Lasarte-Oriako Oriarte institutuan ikasleak.



# GAIA:

# ESKOLAK ITXITA, LAGUNTZA- SAREAK IREKITA

Azken aste hauetan ohiko eskolabideak zeharo aldatu dira COVID-19aren krisiaren eta horrek ekarri duen konfinamenduaren ondorioz. Ikasle eta irakasleen arteko aurrez aurreko komunikazioa eten egin da eta online deitzen dugun erlazio bidea zabaldu. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bi hanken gainean dabil: informazioa eta interakzioa. Aurrez aurre zein distantziaz separaturik, ikasketa prozesu guztiek informazioa eskatzen dute eta informazio hori asimilatzeke interakzioa. Aurrez aurreko irakaskuntzan irakasleari dagozkio, nagusiki, bi egiteko horiek. Informazioa emateko liburuen (edota beste bitartekoen) laguntza izaten du eta interakzioa izaten da hortik aurrera bere lan denbora gehiena betetzen duena. Nola aldatzen da egoera didaktikoa onlineko irakaskuntza garatzen denean? Ikasleak informazioa jasotzen du eta hemen galera txikia da informazio hori ongi egituraturik baldin badago. Baina zer gertatzen da interakzioarekin? Bada, kaleidoskopioa zabaltzen dela eta joan-etorrien kopurua biderkatzen dela.

Baina irakaslea bakarra da eta ikasle bakoitzak berea behar du. Horregatik da egoera honetan horren garrantzitsua komunikazioa mantenduko duten pertsonen, irakasleen lana egingo duten beste pertsonen, kopurua handitzea. Geroz eta

irakasle eta laguntzaile gehiago, orduan eta atentituagoak egongo dira ikasleak eta geroz eta hobea izango da interakzioaren kalitatea. Online irakaskuntzan, ohiko irakaskuntzan bezala, informazioaren eta interakzioaren kalitateak baldintzatuko du arrakasta, baina onlineko irakaskuntzan zaila da interakzioaren kalitatea bermatzea irakaskuntzaren atal honetaz arduratzen diren pertsonen kopurua ez bada handitzen. Erreportaje honetan bildutako esperientziak ideia horien adibide dira. Ikastetxeko ikasle ohiak, irakasle praktiketako ikasle ohiak edota ikasleak beraiek izan daitezke irakaslearen funtzioa bete dezaketenak beste ikasle batzuentzat, denbora eskaini dezaketenak ikasleei laguntzeko eta interakzioa bermatzeko.



# Ikasle ohiak laguntzeko prest

**D**onostiako Axular lizeoan Etxeko LanKide ekimena jarri dute martxan desberdina eta ezohikoa den egoera honetan ikasleei laguntzeko. Ikasle ohiak ikasleei laguntzen jarri ditu egitasmo honek.

Berehala konturatu ziren egoera honetan hainbat ikaslek laguntza gehigarria beharko zutela, tutorearen eta gurasoen babesa jaso arren. Itziar Redondo egitasmoaren koordinatzaileetako bat da eta laguntza hori mota askotakoa izan daitekeela dio: “Guraso batzuek ez dute euskara menderatzen eta ez dira gai sentitzen seme-alabei laguntzeko; beste batzuk ez dira gai eduki horiek erakusteko, batik bat DBHn; beste batzuek etxetik kanpo lanean jarraitu behar dute eta ez dute aukerarik seme-alaben aldamenean egoteko; beste batzuk teknologia berriekin ez dira moldatzen. Beraz, batzuei zein besteei lagundu egin behar geniela ikusten genuen eta ikasle ohiengana jo genuen laguntza bila”.

Axularkide egitasmoan biltzen diren ikasle ohiengana jo zuten laguntza eske. Aldi berean, LH 5. mailatik Batxilergorako familiei ea laguntza osagarria nahi zuten galdetu zitzaion. “Informazio hori guztia bildu eta aztertu egin genuen zuzendaritzan orientatzaileen laguntzarekin. Alde batetik ikasleen beharrak zein ziren, bestetik ikasle ohiak eskaini zezaketena zer zen, eta ondoren, ikasle-bidelagun bikoteak osatu”. Guztira 25 bikote ari dira parte hartzen.

Bidelagun izateko izena eman duten ikasle ohiak profil anitzekoak dira: ingeniariak, lorezainak, dendariak, erizainak, unibertsitateko ikasleak... Denetarik dago. Xabier Arraz-



Itziar Redondo koordinatzaileak dio babes sentimentua mantentzen duela ekimenak.


tio, esate baterako, arkitektoa da; horrez gain, Axularreko ikasle ohiak eta bertako guraso gaur egun —LHko 5. mailan ditu seme-alaba bikiak—. DBH 3. mailako ikasle bati laguntzen ari da. “Lehenbiziko bi egunak elkar ezagutzen pasa genituen”, kontatzen du. “Bat-batean beste baten etxean sartzen zara, ez zaitu ezertaz ezagutzen, nik ere ez bera, eta beraz, oso garrantzitsua da elkar ezagutu eta konfiantza giro bat sortzea: zer pelikula gustatzen zaizkizu, zer ari zara irakurtzen... bere bizitza, azken finean. Behin hori finkatu ondoren egin ditzakezu beste gauza batzuk”. Arraztiok dio hortik aurrera beraien egitekoa ez dela edukietan zentratu, lan ohituretan baizik. “Gure kasuan hori izan da premiazoena: antolaketa, ordutegia, lan-ohiturak finkatzea... alderdi horietan eman diot nire laguntza”. Izan ere, banakako laguntza hau ematean konturatu dira bidelagunak ikasle bakoitzaren beharrak eta zailtasunak zein diren.

Nerea Goitia June Galan DBH 3. mailako ikasleari laguntzen ari da, eta beraien arteko harremana oso erraza izan dela diote biek. “Berehala konektatu dugu, ez dugu Xabierrek dioen bezala denbora pasa behar izan konfiantza lortzeko eta oso-oso gustura nabil berarekin”, dio Nerea Goitia bidelagunak. Astean hiru egunetan jartzen dira harremanetan bideokonferentzia bidez, egunean ordubete gutxi gorabehera, baina malgutasunez jokatzeko beharren eta lanen arabera. “Hasieran beti komentatzen dugu zer moduz gauden, eta gero edukiak lantzen hasten gara”. June Galan ikasleari ondo datorkio Nereak eskaintzen dion laguntza. “Irakasleak online ematen digu eskola 30 ikasleri, eta Nerea nirekin bakarrik dago. Oso desberdina da. Nerea iturri azkarragoa da eta berarekin kontaktatzen dut”.

Enpatia handiz bizi du Goitiak esperientzia hau eta horrekin bultzatu du parte hartzera, hain zuzen ere: “Ingenieritza ikasketak egin ondoren, orain doktoradutza ikasketak egiten ari naiz eta Juneri gertatzen zaion gauza berbera pasatzen zait niri ere; eskolak online jasotzen ari naiz eta badakit zer den hori. Aurrez aurrekoan dinamika gehiago dago, online oso hotza egiten da. Nik ere eskertuko nuke horrelako laguntza”. Gainera, guraso biak Axularreko irakasleak ditu Goitiak, eta etxean ikusten du zein zaila den betidanik aurrez aurre egin diren jarduerak digitalizatzea.



## GAIA: ESKOLAK ITXITA, LAGUNTZA-SAREAK IREKITA



June Galan ikasleari Nerea Goitia ikasle ohiak laguntzen dio Etxeko LanKide egitasmoaren barruan.

Juneren ama Amaia Estala oso gustura dago alaba jasotzen ari den laguntzarekin eta bidelagunarekin. “Nerea erabat inplikaturik dago, uneoro hor dago edozein zalantza edo galderatarako. Egoera zaila bizitzen ari gara eta gure kasuan telelana eta etxea kontziliatzea ez zaigu erraza suertatzen ari. Ni etxetik lanean ari naiz, aita ere bai, seme txikiagoa daukagu eta hari ere lagundu behar zaio, jatorduak prestatu behar ditugu eta abar; lan bolumena igo zaigu. Horrez gain, euskaraz ez dakit oso ondo eta zailtasun akademikoak ditugu DBHn lantzen ari diren edukiak azaltzeko”. Gurasoek guraso rola dutela dio Estalak, eta ez irakasleena. “Esplikatzeko hasten naiz, ez daukat hainbesteko pazientziarik eta azkenean haserre bukatzen dugu. Egoera horrek tentsioa sortzen du, eta nahikoa tentsio bizitzen ari gara bizitzen ari garekin horrez gain beste bat sortzeko ikastolako edukiengatik”.

Gurasoen eta irakasleen zereginak aipatzean, Arraztiok ulertzen du guraso batzuk edukiarekin laguntzeko gai ez sentitzea. “Baina antolaketan edozein gurasok lagundu diezaieke seme-alabei, adibidez, 22:00ak baino beranduago ohera ez joaten, ikasten hasiarazten, irakurtzeko animatzen... Horretarako ez ditugu edukiak behar. Horretan guraso izan behar dugu, ez besterik”.

## Babesa eta gertutasuna

Edukiak lantzeko aukera izateaz gain, gertutasuna sentitu dutela azpimarratzen du Estalak, eta ikastolaren aldetik horrelako ekimena martxan jartzea izugarria izan dela, oso ondo etorri zaiela. “Nik uste dut ikasleek behar dutela beren irakasleak, tutoreak eta bidelagunak beraiengatik kezkatzen direla sentitzea. Ez akademikoki bakarrik, baizik eta ‘zer moduz zaude, nola daramazu, zer behar duzu...’

galdetzea”. Alabak ere baietz dio, hori eskertu duela. Itziar Redondo koordinatzailea ere ados dago horrekin. “Egiten dutena baino gehiago sentitzen dutena da. Babes sentimendua mantentzen laguntzen du ekimen honek”. Horren adierazle da Aste Santuko oporretan ere batzuek hartu-emanen jarraitu izana. “Gainera, etxean gurasoekin euskaraz hitz egiten ez duten ikasleei ongi etorri zaie, nola dauden jakiteko deitu dieten bitartean euskaraz hitz egiteko aukera izan dutelako”.

Gustura egoteaz gain, hausnarketarako tarte ere eman die esperientziak. “Babesaren alderdia gehiago landu beharko dugu aurrerantzean”, dio Redondok. “Eduki batzuk kendu beharko ditugu eta gure haur eta gazteak babestuta sentitzeko zer behar duten ikusi. Begietara begiratu behar diegu eta zer behar duten ikusi”. Arraztiok ere agian edukietan eta curriculumean aldaketak egin beharko direla ikusten du. “Zergatik jakin behar dugu logaritmo nepertarrak nola egiten diren? Ni arkitektoa naiz eta ez naiz gogoratzen nola egiten diren logaritmoak. Batzuetan gero erabiltzen ez diren edukiak irakasten dira”.

June ikasleak dio aldaketa handia izan dela eskolak online jarraitzea. “Eskolak jasotzen jarraitzen dugu, baina ez da gauza bera. Pantaila baten atzean gaude eta nire ustez hobe da ikastolara joan eta aurrez aurre jasotzea”. Aurrez aurrekoa eta arreta pertsonalizatua aipatu ditu Junek. Irakasleek ezin diete banakako arreta eskaini 30 ikasleri. “Nork egin dezake hori ikastetxe batean?”, galdetzen du Arraztiok. “Orientatzaileak. Baina orientatzaile bakarra baldin badago 800 ikaslerentzat? Agian orientatzailearen funtzioa eta zeregina garrantzitsua dela ikasiko dugu krisi egoera honetan eta orientatzaile gehiago behar ditugula ikastetxeetan”.

# Irakasle ikasketak egindako ikasle ohiak aktibo

**E**txarri-Aranatzeko ikastolan ere ederki antzeman dute ohiko eskolabideak zeharo aldatu direla. Garbi ikusi dute konfinamendu egoerak ikasle batzuen beharrianak areagotu dituela. Arazo horri irtenbide egokia emateko Etxarri Aranatzeko Andra Mari/Sakana ikastolak unibertsitatean irakasle ikasketak egindako eta ikastolan praktikaldia burututako ikasle ohien laguntza baliatu du. Une honetan DBHn bost ikasle ohik eta LHN beste batek eskaintzen diete beraien denboraren parte bat bederatzi ikasleri ikasketa telematikoek sortutako zailtasunak kudeatzen laguntzeko.

“Ikastolako zuzendaritza taldeak bideratuta, Lehen Hezkuntzako etapa bilera batean, ikastolan bertan irakasle ikasketetako praktiketan aritutako unibertsitateko ikasleek hainbat umeri laguntzeko aukera ipini zen mahai gainean”, kontatzen du Itziar Aldaz orientatzaileak. “Ideia hori ontzat hartu eta orientazio praktiketan zegoen ikasle bati eskaini zitzaion aurrera eramateko aukera. Emaitzak positiboki baloraturik, DBHn detektatutako beste behar batzuei antzeko soluzioa ematea pentsatu zen”.

Laguntza saio hauek eraginkorrak izateko lehen urratsa laguntzailearen eta ikaslearen arteko lotura emozionala ziurtatzea da. Behin hori lortuta, irakasle laguntzailea ikaslearen itzala bihurtzen da, goiz osoko ibilbidean bere parean joanez. Hori guztia posiblea da bien artean goizaren hasieratik *meet* bidezko konexioari esker. “DBHko etapan, ikasleek ordu eta erdiko hiru saio dituzte eta saio bakoitzean irakasleek egin beharreko lanaren azalpena eta jarduerak planteatzen dituzte. Helburua proposatutako lana saio horietan bukatzea da, arratsalde familiarekin edota beste jardueretan pasatzeko aukera emanez”, azaltzen du Estitxu Ruiz Pedagogia Terapeutikoko irakasleak.

## Koordinazioa da bermea

Laguntza eskaintzeko urrats hauek jarraitu dituzte:

- *Meet*-en ikaslearekin konektatu eta ikasleak pantaila aurkeztu. Laguntzaileak ikasgelara joateko orientabideak ematen dizkio eta egokitzen den saioan sartzeko eskatu.
- Arloko irakasleak planteatzen duen lana irakurri: batzuetan *Meet*-en konektatzeko irakasleak eskatzen du eta beste

batzuetan aginduak idatziz daude.

- Saio horretako lanak planifikatu eta zalantzak argitu edo bideratu (irakasleari galdetuz...).


- Lanak entregatu dituztela ziurtatu.

- Goizearen bukaeran zer falta zaien ikusi eta ez badute egin irakaslea informatu zergatia azalduz.

Hori guztia aurrera eramateko baldintza batzuk bete behar dira. “Lehenik eta behin, irakasle taldeak, orientatzailearekin batera, zein ikaslek behar duen laguntza erabaki behar du. Bestalde, familia informatu eta bere oniritzia jaso.

Azkenik ikastolako IKT arduradunaren inplikazioa ezinbestekoa da”, deskribatzen du Ruizek. Eta ondoren, noski, lan honen jarraipena egitea beharrezkoa da. “Horretarako, orientatzailea eta irakasleak praktiketako irakasle laguntzaileekin kontaktuan aritzen dira”, gehitzen du Aldazek.

Esperientzia honek inprobisazio une asko izan ditu, inplikaturik dagoen jende guztia koordinatzea ez baita lan erraza. Funtzionamendua momentuan sortu diren elkarrekintza eta egoeretara egokitzen joan da. Ondorioa? “Oso esperientzia polita eta onuragarria izaten ari da ikasle zein irakasleentzako. Etxarriko Andra Mari ikastola oso eskertua dago ikastolan praktikaldia egin zuten unibertsitateko ikasle ohiek azaldu duten borondate onarekin eta eskerrak ematen dizkiegu hau posible egin duten guztiei”. Gainera, laguntza-sarea hedatuz doa: hasieran irakasle ikasketak egiten ari ziren eta praktikaldiak ikastolan egin zituzten ikasle ohien laguntza jaso baldin bazuten ere, jada beste ikasketa batzuk egin dituzten ikasle ohiak ere animatu dira ikastolako ikasleei laguntzeko.





# Ikasleak elkarri laguntzen

Ikasleek orain arte ohitu gabeko modu berri batean jarraitu behar dute ikasten, irakasleek bidaltzen dizkieten lanak egiten, eskolak bideokonferentzia bidez jarraitzen eta abar. Batzuk erraz moldatzen dira, beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Eta hori beste inork baino hobeto dakite beraiek. Horregatik, elkarri lagundu diezaioketela konturatu dira Lasarte-Oriako Oriarte institutuko ikasleak eta ikasleen arteko laguntza-sare bat jarri dute martxan. Institutu horretako eta Usurbilgo Udarregi ikastolako ikasleak ari dira parte hartzen.

Ikasleen asanbladatik hasi dira ekimen interesgarri eta berritzaile hau kudeatzen eta antolatzen, besteak beste, Elorri Armendariz eta Malen Arregi ikasleak. “Gora Ikasleon Borroka mugimenduan antolaketa berri bat sortu nahi da, eta une honetan *Kargatzen* prozesua ari da aurrera eramaten hainbat ariketa eta ekimen eginez. Konfinamendu garai honetan ikasleen beharrak zein diren jakin nahi izan da eta ideia horri tiraka etorri da ikasleen sareak sortzeko enbidoa. Guk, enbido horri heldu egin diogu”.

Izan ere, horretarako motiborik badela ikusi dute. “Batzuk ondo jarraitzen dute ikasketa-prozesua eskolak online eginez, edukia irakurri eta ulertuz, baina beste batzuei gehiago kostatzen zaie, laguntza behar dute: bideoak azalpenekin edo beste zerbaite”, dio Armendarizek. “Baina irakasle guztiek ez dute hori egiten, eta orduan, konturatu ginen guk geure artean elkarri lagundu geniezaiokeela. Iruditu zitzaigun ondo legokeela ikasleen arteko sare bat sortzea horretarako”.

Sare sozialak baliatu dituzte egitasmoa martxan jartzeko. “Galdetegi bat pasa genuen sare sozialen bidez ikasleen artean zer behar zeuden ikusteko, bai Oriarte institutuko ikasleen artean (DBH 3-4 eta Batxilergoa) eta bai Udarregi ikastolako DBHko ikasleen artean ere. “Batzuk agian etxean wi-firik ez zutela edukiko pentsatzen genuen, edo ordenagailua faltako zitzaiela”, kontatzen du Armendarizek. “Baina gehienbat apunteen eta etxerako lanak pasatzeko beharrek aurkitu gara. Eduki aldetik dago behar gehien, ez baliabide aldetik”.

Hori ikusita drive karpeta bat sortu dute eta 45 ikasle inguru ari dira berau partekatzen. “Bi taula bereizi ditugu, Udarregi ikastolako edukientzat bat eta Oriarte institutukoentzat bestea, ematen duten edukia ez delako berdina”, azaltzen du Arregik. “Taula bakoitza ikasgaika antolatu dugu, maila bakoitzeko ikasgai bakoitzarentzat


karpeta bat sortu eta hor ikasgai horri dagokion edukia sartzen dugu. Ikasle parte-hartzaileei ahal dituzten apunteak igotzeko eskatu diegu”. Horrela, ikasleek beraiek osatutako materialarekin ari dira betetzen karpetak.

## Eman ta zabal zazu

Batzuek apunteak igo eta beste batzuek erabili, hori da ikasleen arteko sare honen funtzionamenduaren ardatza. Eta baita eskatu ere, gaineratzen du Armendarizek: “Norbaitek ikasgai edo gai jakin bateko apunteak nahi baldin baditu, eskatu ditzake, eta ondoren, apunteak dituenak karpetan sartu”. Arregik gaineratzen duenez, “edozein unetan idatzi dezake nahi duenak. Adibidez, nik Matematikako integralak ez baldin baditut ulertzen eta laguntza nahi baldin badut, eskatu dezaket eta norbaitek bideotxo bat bidali diezadake azalpenak emanez edota bideokonferentzia bidez biok harremanetan jar gaitezke”.

Irakasle batzuk ere ikasleekin harremanetan jarri dira laguntza emateko prest daudela esanez, eta ikasleek asko eskertu dute hori ere.

Momentuko beharrei erantzuteaz gain, sare bat eratu eta harremanak sortzeko balio dezake ekimenak. “Orain edukian dago beharra, baina agian hemendik bi astetara beste behar batzuk sortuko dira eta moldatzen joango gara”, dio Arregik. “Hasiera batean konfinamendu egoerarako pentsatuz sortu dugu, baina ondo funtzionatzen baldin badu aurrerago ere erabiltzen jarrai dezakegu. Hau da, nahiz eta aurrez aurreko eskoletara bueltatu, ikasleok apunteak eskatzen eta jartzen jarrai dezakegu”, gehitzen du Armendarizek.



Drive-eko karpeta bat partekatzen dute apunteak eskaintzeko zein eskatzeko.





“Hik Hasi heldu egin da, 25 urte ditu, jendeak aintzat hartzen du eta hori errespetutik landutako uzta da”



# ELKARRIZKETA:

## HIK HASIK 25 URTE

ARANTXA URBE

XABIER SARASUA

IZASKUN MADARIAGA

---

### HIK HASIKO KIDEAK

1995ko maiatzean ikusi zuen argia *hik hasi* aldizkariaren 0. zenbakiak. Proiektu edo egitasmo zabalago baten barruan ernatu zen lehen lorea izan zen, hezkuntzako esparru askotatik espero eta desiatua. Izan ere, euskal hezkuntza komunitatean, irakasleen artean, sareen artean... elkartruckerako foro baten beharra gero eta nabarmenago sentitzen zen, denena eta denentzat izango zen topagune eta eragile baten premia ikusten zen. Arantxa Urbe, Xabier Sarasua

eta Izaskun Madariaga irakasle, hezitzaile eta Hik Hasiko kideek hurbildu gaituzte hasiera haietara, amets hartara, gerora mirari bihurtu den proiektu zabal eta emankorrera. Joxe Mari Auzmendik batuta hartuta martxan jarri zituen ingurukoak eta 25 urteotan Hik Hasiren inguruan bildu dira bulegokideak, batzordekideak, kolaboratzaileak, harpidedunak, ikastaroetako parte-hartzaileak, hezkuntzako eta gizarteko eragileak... komunitate osoa. Lorea lorategi bihurtu da.



**1995eko maiatzean argitaratu zen hik hasi euskal heziketarako aldizkariaren 0. zenbakia. Zuek hirurok hasiera hartan egon zineten. Zein zen une hartako testuingurua? Zer ari zen bizitzen?**

**Xabier Sarasua:** 0. zenbakia Hik Hasi proiektua sortzera zihoala aditzera emateko abiapuntua izan zen. Garai hartan irakaskuntzan foro bat sortzeko ideia bueltaka zebilen hainbat jenderen artean. Nik neuk UEUko ikastaroetan parte hartzen nuen eta 1994an zerbait egin beharra zegoela erabaki zen. Hezkuntza komunitatean, irakasleen artean, sareen artean... foro bat behar zela sentitzen genuen informazioa partekatzeko, esperientziak trukatzeko... Denona izango zen elkartruketarako foro bat behar zela ikusten zen.

Garai hartan euskal irakaskuntza edo hezkuntza kanpotik inposatzen ziguten sistema baten barruan zegoela ikusten zen, hizkuntza gutxitu batean, euskaraz ez zekien irakasle askorekin, zatituta, funtzionatzen ez zuten hizkuntza eredu batzuekin, gure curriculuma garatu gabe, guk bertan sortutako material gutxirekin, dena inportatuz, argitaletxe nagusienak ez ziren bertakoak eta eskoletan erabiltzen zen material askok eta askok edo gehienek Euskal Herritik kanpoko erreferenteak zeuzkaten

eta abar. Horren guztiaren aurrean, eztabaidatu, trinkotu eta denok elkarrekin erronka horietan guztietan aurrera egiteko premia sumatzen zen.

**Arantxa Urbe:** Horrekin batera, 1993an ikastolak publikatu edo ez erabakitzen behartuak izan ziren. Hezkuntzaren historian guk ezagutu dugun kapitulerik ilunena izan zen nire ustez, izugarritzko zauriak eragin zituen inposatua izan zen erabaki hark, ez bakarrik alde batean zein bestean gelditu zirenen artean, baita ikastola bakoitzaren barruan ere. Lurrikararen ondoren noraezean gelditu ginen EAEn: noraezean zeuden ikastolak, noraezean zeuden publikatu zirenak, eta hori ere lurzoru ona izan zen nora joan behar genuen planteatzeko.

Joxe Mari Auzmendi giltzarri izan zen hastapen hartan. Hark lehen pertsona bizitu zuen publikazio prozesua eta nik uste dut berak erronka pertsonal bezala hartu zuela, lurrikararen ondorengo deskalabrua ikusita, komunitatea trinkotzea. Hezkuntza komunitatea nola berreraiki zitekeen pentsatzen hasi zen Joxe Mari. Eta berreraikitze horretan berak oso garbi ikusi zuen hasieratik elkar hartu behar genuela, bakoitza zegoen posiziotik, bakoitzak zeukan ikuspegitik, baina elkar hartuta.

**X. S.:** Hainbat tokitatik sortutako ekimenak zeuden, hamaika iturritatik zetorren egarri hori, eta elkartu egin ziren forma emateko. UEUko zenbait partaide Joxe Mari Auzmendiarekin eta beste batzuekin jarri ziren harremanetan eta Joxe Mari hartu zuen batuta; hura ez bazen hasi, akaso ez zen ezer egingo.

**A. U.:** Bai, askotan gertatzen da hori historian: suak daude leku desberdinetan, txinpartak, interes komun batzuk, eta denak elkartu eta nonbaitetik hasten da.

**X. S.:** “Elkartu gaituzen, abiatu dezagun, goazen elkarrekin politik-poliki gure hezkuntza eraikitzen, har dezagun erronka hori gure esku, ditugun erronkei erantzuteko baliabideetatik Hik Hasi hartuta, aldizkaria gehi proiektu osoa”. Hori esan genuen. Oso utopikoa zen, eta aldi berean, oso praktikoa. Aldizkari bat zen, baina atzetik amets eta erronka pila bat zeuden.

**Foro bat sortzeko erabakia hartu zen eta lehen egitekoa aldizkari bat sortzea izan zen. Zergatik aldizkari bat?**

**X. S.:** Foro horren abiapunturako euskarrikerik interesgarriena aldizkari bat egitea zela ikusi zen. Irakasleen artean informazioa partekatu nahi zen, esperientziak trukatu, eta hori aldizkari batekin egin zitekeela pen-



tsatu zen. Gure artean eztabaidatzeko, gure benetako premietan aurrera egiteko eta hezkuntza komunitatea egituratzen joateko eta elkargune bat edukitzeko tresna eta bitarteko gisa ikusten genuen.

Baina oso zaila ikusten zen, ez genekien nondik hasi, ez genekien zer forma eman, ez genekien ezer. Eztabaidatzen aritzen ginen, bakoitzak bere ideia botatzen zuen, eta Joxe Mari izan zen hasieratik argi ikusi zuena, baietz, egin behar zela eta bera prest zegoela: Berehala bihurtu zen Joxe Mari motorra.

**A. U.:** 1995eko udaberrian hasi zen ideia gorpuzten. Joxe Marik inguruko lagunengana jo zuen aldizkaria martxan jartzeko, bai komunikabideetan zituenengana, bai argitaletxeetan zituenengana, bai hezkuntza arloan zituenengana... Nik uste dut hurbildu ginen jende gehiena lagunak ginelako hurbildu ginela, ez genuen hainbeste aztertu proiektua bideragarria zen edo ez.

**Sarritan aipatzen da aldizkariaren edo proiektuaren bideragarritasuna, inork ez zuela aldeko apusturik egiten, baina 25 urte egin ditu.**

**Izaskun Madariaga:** Nik proiektuan sinesten nuen, ikusten nuen egin beharra zegoela, Euskal Herrian —bere osotasunean hartuta—, euskaldunentzako, euskaraz, pedagogia komun bat bultzatuz. Hutsune bat zegoela ikusten nuen eta izugarria izan zen pertsona batzuk elkartzea, egin behar zela hain garbi ikustea, eta horretarako baliabideak, bideak edo aukerak garbi ikustea. Niretzat zoragarria izan zen, izugarria.

**X. S.:** Hala da. Gogoia zegoen, premia ikusten zen, jendea elkartu zen, baina inork ez zuen sosik emango aldizkariak etorkizunik zeukanik. Ez dakit zenbat ate jo ziren eta denek esaten zuten “nora zoazte, gu saiatu gara, ez dauka irteerarik, Euskal Herrian ez dago nahikoa masarik horrelako aldizkari bat egiteko”. Inondik inora ez zuten ikusten bideragarria izan zitekeenik. Eta halere, Joxe Marik argi ikusten zuen baietz, “hartuko dugu, hasiko gara”. Nik uste dut hor izugarritzako indarra egon zela.

Badago halako sinesmen bat gure esku ez dauden indarrak ere martxan jartzen direla erabakitako egitasmo bat aurrera ateratzeko. Eta nik uste dut Hik Hasin horrelako zerbait gertatu zela, batez ere jendearen energia eta bultzada zegoela.

**I. M.:** Herri konpromiso bat egon zela esango nuke. Nik pertsonalki beharra zegoela ikusten nuen eta ahal nuen guztia egiteko prest nengoen: lehendakari izateko norbait behar zela, bada ni prest; Eusko Jaurlaritzara norbaitekin hitz egitera joan behar zela, bada ni prest.

**A. U.:** Energia eta bultzadaz aparte, ausardia gehituko nuke nik. Joxe Marik bere lana utzi zuen, bigarren ikasturtera arte ez zuen kazetaririk eduki aldizkariak, Joxe Mari bakarrik zegoen eta besteok lana bukatutakoan joaten ginen laguntzera ahal genuenean. 0. zenbakia zerotik hasi zen, ez zegoen ordenagailurik ere. Aldizkaria egiteko enpresa bat sortu behar zen eta hor ere ingurukoengana jo zuen Joxe Marik: ikastola mundukoak, publikokoak, pertsonak, eragileak, sindikatuak, argitaletxeak... 15 pertsonak 50.000 pezeta (300 euro) jarri zituzten laguntzako, beste pretentsiorik gabe. Herrigintzako ekintza bat izan zen.

Horrela, 1995eko maiatzean kaleratu zen 0. zenbakia eta aurkezpen txartel bat bezala izan zen. Ordura arte dena ziren idatziak eta intentzioak. Orri bat zegoen idatzita asmoekin: , urtean hamar zenbaki, Euskal Herri osoko ikastetxeetan banatuko da... Baina maiatzetik aurrera, uda horretan, orri horrekin batera aldizkaria geneukan, eta horrekin jada amets izatetik eta amets bat aurkeztetik, zerbait zehatza edukitzera pasa ginen, nahiz eta zalantzak egon oraindik. Efektiboki agian ez zen oso pauso handia izan, 0. zenbakia nola edo hala egin zen eta horrek ez zuen bermatzen atzetik besteak etorriko zirenik, baina balio izan zuen sinesgarritasuna irabazteko eta jendeak ikusteko jada eskuetan zegoela ametsaren zati bat.

**Testuinguru horretan, orain dela 25 urte, zein premia ikusten ziren?**

**X. S.:** Hasteko, aipatu duguna, zatiketa gainditzeko premia, hori

“Elkartu gaitezen, abiatu dezagun, goazen elkarrekin poliki-poliki gure hezkuntza eraikitzen, har dezagun erronka hori gure esku, ditugun erronkei erantzuteko baliabidetzat Hik Hasi hartuta, aldizkaria gehi proiektu osoa’. Hori esan genuen. Oso utopikoa zen, eta aldi berean, oso praktikoa. Aldizkari bat zen, baina atzetik amets eta erronka pila bat zeuden”

Xabier Sarasua

“Joxe Mari Auzmendi giltzarri izan zen hastapenean. Hezkuntza komunitatea nola berreraiki pentsatzen hasi zen eta oso garbi ikusi zuen elkar hartu behar genuela, bakoitza zegoen posiziotik, zeukan ikuspegiarekin, baina elkar hartuta”

Arantxa Urbe



nabarmena zen. Bestetik, hizkuntza ereduaren porrota, euskal curriculumaren beharra eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntza bat izatea. Euskal hezkuntza sistema hemengoak izateko premia ere ikusten zen, deszentralizatzeko beharra, ikastetxeek autonomia gehiago izatekoa. Gauza horiek pil-pilean zeuden, eztabaidan zeuden foro desberdinetan.

**A. U.:** Esandako premiei beste bat gehituko nieke, gaurko perspektibatik agian ulertzen zaila zaiguna: irakasleen euskalduntzea. Agian gaur egun ez dugu premia bezala ikusten, baina orduan oso garrantzitsua zen, irakasle guztiak ez baitzeuden euskaldunduta.

#### **Zein ezaugarriekin jaio zen aldizkaria?**

**X. S.:** 0. aldizkarian ezaugarri hauek jarri ziren: euskalduna, nazionala, irakasleena, irekia eta plurala, baterakoia eta independentea. Ezaugarri bakoitzaren atzetik hausnarketa sakon bat dago.

Topagunerako, elkar ezagutzeko, informazioa partekatze eta eztabaidatzeko foro baten premia ikusten zen eta garbi geneukan foro horrek parte-hartzailea izan behar zuela. Ikastetxe eta irakasle guztiak bultzatu nahi ziren parte hartzera eta haien

esperientziak kontatzera. Nahi zuen guztiarentzat irekia izatea nahi zen, ideologia jakin bati lotua ez egotea, denontzat izan zedin.

**A. U.:** Beti egin da ahalegina aldizkari bakoitzean egoteko ikastoletako zerbait, eskola publikoetako zerbait, Iparraldekoa, Nafarroakoa... Nahiz eta Hik Hasiren aurpegiak oso markatuak izan, aldizkaria eta proiektua denontzat izan dira eta hori argi izan genuen hasieratik, Hik Hasi denentzako zela eta dela.

**I. M.:** Irekiera hori hasieratik sumatu nuen nik. Garai hartan 2 urteko gelak irekitzen ari ziren eta ni beste ikuspuntu batean kokatzen nintzen, 0-3 etapa osoa defendatzen. Garai hartan askok ulertzen ez zuten ikuspegiaren eta Hik Hasin hasieratik hartu zen aintzat. 0. zenbakian bertan argitaratu zen etapa horri buruzko artikulua eta nahiko agudo egin ziren egokitzapenari eta atxikimenduari buruzko jardunaldiak ere. Oraindik garrantzi handia ematen ez zitzaion garaian serio hartu zuen Hik Hasi 0-3 etapa eta orain ere hala jarraitzen du.

**X. S.:** Oso intuizio onak egon ziren hasieratik, seguraski Joxe Marik eta beste batzuk jada esperientzia bazeu-

katelako, eta proiektua independentea izatea nahi zen, ez egotea erakundeen eta haien dirulaguntzen menpe, baizik eta autonomia edukitzea. Bestetik, Euskal Herri osorako izatea.

Irakasleena zen beste ezaugarri bat. Gaur egun agian ez da ulertzen zergatik izendatu zen irakasleena eta ez komunitatearena. Alde batetik, ulertu behar da aldizkari eta proiektu hau hainbat irakasleren bultzada eta kezkatik sortu zela, irakasleen begiradatik egindakoa izan zela. Eta bestetik, erronka nagusietako bat irakasle guztiarentzat izatea zela: sare guztietan zeudenak, egoera guztietan zeudenak, pentsamolde desberdina zeukatenak... denontzat. Irakasleak protagonista bihurtu nahi ziren aldizkariarekin, eta erakarri. "Aldizkari hau gurea da, irakasle guztiona" ideia zabaldu nahi zen.

Gero, zorionez, begirada irekitzen joan gara denok eta Hik Hasi ere bai, eta irakaslearen partez komunitate osoa aipatzen dugu orain. Halere, aldizkaria sortzeko oinarri programatikoa bat adostu zen aurretik eta han komunitatea aipatzen zen: "ez dira gaur sortutakoak euskal irakaskuntza osatzen dugun elkarte eta komunitateko partaideok (gurasoak, irakasleak, ikasleak, hezitzaileak eta abar) gure hezkuntza sistemaren inguruan ditugun kezka". Begirada komunitate osora zabaldua zegoen hasieratik, baina aurreneko motorrak irakasleak izan behar zutelako ikusten zen. Irakasleen konplizitatea eta parte-hartzea bultzatu nahi ziren.

**A. U.:** Nik beste ezaugarri bat azpimarratuko nuke: Hik Hasi oso proiektu eskuzabala zela. Begira zein baldintzatan geunden, zero pezeta, zero bitarteko, sinesgarritasun gutxi hezkuntza eta administrazio mundutik, eta halere, Hik Hasi hartu zuen lehen erabakia izan zen aldizkaria ikastetxe guztietara dohainik bidaltzea. Produktua, bidalketa eta dena bere gain hartu zituen. Zergatik? Ahalik eta leku gehienetara iristea nahi genuelako. Eta ez genuen lekutik eman genuen. Alde horretatik oso proiektu eskuzabala izan da Hik Hasi hasieratik.

Eskuzabaltasun horren beste adierazle bat da Hik Hasi sortu zenetik 25



urtera harpidetza kuota ez dela igo, eta uste dut hori ez dela beste inon gertatu. Zituen eta dauzkan bitarteko gutxierekin, beti eskuzabaltasun handia eduki du, bere iparra beti izan delako hezkuntzan ahalik eta gehien zabaltzea, ahalik eta jende gehienarengana iristea.

**I. M.:** Niretzat erreferentea zen zegoen borondatea: zenbat lan, zenbat ekarpen, bitarteko gutxierekin gauza asko sortzeko gaitasun hori... bihotza eta borondatea. Ordaindu ezina. Miresgarria.

### Zein erronka markatu ziren?

**X. S.:** Alde batetik eguneroko erronkak zeuden eta bestetik helmuga edo xedetzat inplizituki denok buruan geneuzkan norabide batzuk. Eguneroko erronketatik inportanteena, noski, aldizkariaren biziraupena zen. Eta baita ere aldizkariak hasieratik jarri zituen funtzioak ondo betetzea: informatzea eta esperientziak trukitzea, eztabaida bat egotea lehen aipatu ditugun gaietan eta beste askotan, eta topagune bihurtzea. Horrekin batera partaidetza anitza eta zabala izatea nahi zen, hori zen erronka handi bat. Eta horren adierazle zen izena bera: Hik Hasi. Alde batetik, izen hori entzuten duenak nolabait eskolarekin eta hezkuntzarekin lotzen du, eta bestetik, partaide izateko, bultzatzeko eta jendea aktibatzekeo deia egiten du. Espiritu hori izenean bertan nabaritzen da.

Bestetik, helmuga, xede edo norabidetzat geneukan hezkuntza sistema propio bat behar genuela. Hasieratik agertzen zen hori gure hitzetan, hasierako bileretatik, eta zentzu horretan, nik uste dut bazegoela eragile izateko bokazio bat, zeuden premietan aldatketak eragin nahi ziren eta horretan eragile izaera izan zuen hasieratik proiektuak. Askotan eragile izate hori Joxe Marik berak eduki du, bera izan da eragile, eta bere bitartez Hik Hasi.

### Eragile bokazio hori nola gauzatu du Hik Hasik?

**A. U.:** Funtzio edo egiteko asko zituen Hik Hasik hasieratik, baina agian denak beste eskola mota bat egiteko horretan laburbildu daitezke, sistema berri horren beharrez.

Horregatik, 25 urteotan gutxienez hiru saiakera egin ditu herri honen beharrei hobeto erantzungo dien sistema berri bat egikaritzen ahalegintzeko. Gaur egungo sisteman dauden eragileak, protagonistak edo arduradunak bilduz, hausnarketak eginez eta proposamenak osatuz hainbat foro sortu eta eragile izan da Hik Hasi, besteak beste Gunea, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa eta Hezkuntza Proposamena. Hizkuntza ereduak gainditzeko eztabaidan Kontseiluak egin zuen proposamenean ere eragile izan zen, eta baita beste esparru batzuetan ere —Bizipoza, Oinherri herri hezitzailea...—. Komunikazio eta formazio alorra lantzeaz gain, eragile izan da sistema berri baten eraikuntzan aurrera egiteko.

**X. S.:** Hik Hasi beste eragile askoren artean mugitu da eta oso modu onartuan egin du, ekarpen bezala bizi izan dute guztiek eta ez mehatxu bezala. Zentzu horretan, eragile emankorra, baikorra eta eskuzabala izaten asmatu duela esango nuke, eta nik uste dut hori izan dela Hik Hasiren lorpen handienetako bat: eragile onartua izatea, ondo ikusia, eta ekarpena egiten duena bestekin batera batzuetan, bakarrik besteetan, baina beti besteekiko errespetutik, lankidetzarako prest.

**A. U.:** Nik uste dut bere pausoak errespetutik eman dituela: errespetutik desberdinari, errespetutik beste bide bat jorratzeari, errespetutik beste izaera bati, beste nortasun bati, beste pentsamendu bati... Eta horrekin Hik Hasi heldu egin da, 25 urte ditu, ez alferrik, eta errespetuz jokatzeko horrek heldu maila bat eta sinesgarritasuna eman dizkio. Jendeak aintzat hartzen du Hik Hasik esaten duena, eta hori errespetutik landutako uzta bat da.

### Aldizkariarekin batera proiektua gorpuztuz joan da 25 urteotan. Nolako garapena izan duela esango zenukete?

**I. M.:** Mirari bat iruditzen zait Hik Hasik egin duen hedapen guztia: aldizkaria, monografikoak, ikastaroak, jardunaldiak, udako topaketak, material pedagogikoa, Durangoko azoka, bidaia pedagogikoak... den-dena. Baita Hik Hasiren proiektioa bera

“Hik Hasiren izenean bertan antzematen dira ikasi, hasi, parte hartu, gonbidapena... espiritu zabala, anitza eta parte-hartzailea”

Xabier Sarasua

“Komunikazio eta formazio alorra lantzeaz gain, eragile izan da sistema berri baten eraikuntzan aurrera egiteko”

“Sentitu, pentsatu eta ekin’ sentimendua benetan oso sakona eta garbia izan da, hori izan da Hik Hasi aurrera ateratzeko sekretua”

Arantxa Urbe

“Herrira, familietara... eta mundura zabaldu da. Interes hori bazegoen Hik Hasin, jakin-mina beste lekuetan zer eta nola egiten zen ikusteko, zer gertatzen zen... Beti erne, interesarekin”

Izaskun Madariaga



ere, zenbat hedatu den alde guztietara. Biderketa ikaragarria iruditzen zait, alderdi guztiak hartu dituen eta interesa zuen jende guztia gerturazten ikasi duena. Gizartean leku potolo bat egin du, ezinbesteko erreferentea da jada, eta beharrezkoa, gainera.

**X. S.:** Bai, ados nago. Aldizkari edo proiektu bezala 25 urteotan oso ondo jakin du egoera zailean bere garapena izaten eta biziraupen hori finkatzen. Nik uste dut 25 urteotan hezkuntza komunitatean aintzat hartzen den erreferente bat bihurtu dela. Eta hor ezinbesteko funtzioa bete dute harpidedunek, haiek izan direlako proiektua sostengatu dutenak eta komunitatea osatu dutenak.

Hik Hasi batez ere bi dimentsiotan garatu dela ikusten dut. Batetik, Izaskunek aipatu bezala, proiektuan adar askotarikoak sortzen joan dira, zerbitzuak, materialak, formazioa eta abar. Eta bestetik, hezkuntzaren begirada zabaltzen joan da. Hasieran batez ere derrigorrezko hezkuntzara begira zegoen, bereziki irakaskuntzara eta irakasleei. Gero Lanbide Heziketara ere zabaldu zen, gero gurasoak eta familia, gero aisialdia, gero komunitatea, herria. Begirada zabaltzen joan da, eta aurrekoari erantzuteko gai izan den neurrian, prest egon da pixka bat zabaltzeko eta aurrera jotzeko.

**I. M.:** Nik horri guztiari gehituko nioke herrira, familietara... eta mundura zabaldu dela. Ni urtero joaten nintzen In-fan-ciatik antolatzen

genituen bidaia pedagogikoetara eta han ikusitakoari buruzko artikuluak argitaratzen ziren Hik Hasin. Interes hori bazegoen Hik Hasin, jakin-mina beste lekuetan zer eta nola egiten zen ikusteko, zer gertatzen zen... Beti erne, interesarekin. Eta denborarekin Hik Hasik berak hartu zuen bidaia pedagogikoak egiteko ardura.

**A. U.:** Bidaiekin batera harremanak egin dira nazioartean hezkuntza munduan pisua duten eta erreferenteak diren pertsonekin. Eta joan-etorriko bidea izan da, nazioartean ere adituek Hik Hasi ezagutzen dute. 25 urteotan mundura ere zabaldu da Hik Hasi.

Eta herrigintzara eta euskal kulturako beste atal batzuetara ere zabaldu da. Adibidez, jolasen bideoetan euskal kulturako, kiroleko eta beste esparrutako jendea ere ezagutarazi nahi izan zen hezkuntzan, euskal curriculumarekin lotuta. Hezkuntza ez da eskolan bakarrik egiten den gauza bat, ez familian bakarrik, ez kalean bakarrik, literaturatik, musikatik eta abar ere elikatzen gara. Ate hori ireki zen.

**Hasieran sinesgarritasunik ez zuen proiektua zela azpimarratu duzue, amets bat, mirari bat izan dela. Non dago sekretua? Nola da posible 25 urteren ondoren hezkuntza esparruan erreferente bihurtzea hain ahula ikusten zen egitasmo bat?**

**A. U.:** Sorrerako mirariak gain, 25 urteotan momentu zail gehiago ere

izan dira. Horiek dira niretzat mirari handiak, biziraupen hori. Eta sekretua zein izan den? “Sentitu, pentsatu eta ekin” sentimendua benetan oso sakona eta garbia izan dela, batez ere Joxe Mariren aldetik. Jarraitzeko eta jarraitzeko artea zeukan, sua pizturik mantentzen zuen eta azkenean su horren inguruan biltzen ziren bere ingurukoak ere.

**X. S.:** Nik ere uste dut Hik Hasiren muinean egon den indarra eta funtzionamendua adierazteko oso egokia dela hori: sentitu, pentsatu, ekin. Hori izan da ardatza eta horri esker dago Hik Hasi dagoen tokian eta da dena. Sentimendu oso indartsu batetik sortu zen, aipatutako premiek bultzatuta elkartu zen jendea, eta sentimendu, gogo eta nahi handi batetik. Pentsatu horretan gaitasun ikaragarria eduki zuen Joxe Marik zabaltzeko, entzuteko, zuk zer uste duzu galdetzeko, beti galdetu. Beti hartu dute denbora Hik Hasik eta Joxe Marik jendearekin elkartzeko, zertan ari garen azaltzeko, kanpotik nola ikusten den galdetzeko, zer gehiago bururatzen zaizuen galdetzeko, pentsamendua Hik Hasirena bakarrik ez izateko eta ahalik eta gehien irekitzeko. Eta gero egin, beti egiteko prest. Joxe Marik, pentsatzeko denbora hartu ondoren, egin egiten zuen. Nik uste dut sentitu, pentsatu eta ekin aurrera eramaten jakin izana dela aitzinera joateko gakoa.



## 25 urteren ondoren, zein dira Hik Hasik dituen erronkak orain?

**X. S.:** Nik uste dut erronka izaten jarraitzen duela hasieratik erronkatzat hartu zen gauza batek: hezkuntza komunitatearen kohesioa eta horrekin batera hezkuntza sistema propio baterako urratsak egiten joatea. Nik uste dut biak eskutik helduta doazen puntuak direla eta horretan hezkuntza komunitateak ez duela gehiegi aurreratu. Ondorioz, Hik Hasirentzat erronka izaten jarraitzen du.

Gauza askotan aurrera egin dugu, baina aldi berean erronka potoloak oraindik hor dauzkagu: kohesio faltarena, zatiketa administratiboarena, sistema propioaren falta, hizkuntza ereduak hor dauzkagu oraindik, euskal curriculuma oraindik guztiz garatu gabe daukagu... Zatiketa administratiboaren ondorioz errealitate desberdinak ditugu EAEn, Nafarroan eta Iparraldean eta Hik Hasik bere aletxoak jartzen jarraitu beharko du prest dauden eragile guztiak tokian tokian eragiten jarraitzeko.

## Zentzu horretan Hik Hasiren Hezkuntza Proposamenak lagundu dezake?

**A. U.:** Baietz esango nuke. Hik Hasik izan dituen ezaugarriekin eta defendatu dituen gauzak armatzat hartuta egin beharko du aurre, eta bide horretan Hezkuntza Proposamena tresna bat izan daiteke. Gauza asko falta zaizkio proposamenari, baina nik uste dut intenzioa txalotu beharko litzatekeela. Hik Hasi, berriro ere, daukan esanahi guztiarekin — aurretik bi esperientzia eta porrot dauzkagu —, berriro plazara dator hirugarren proposamen batekin, denon artean osatzeko. Ideia zera izan da: goazen hitz egitera eta hitz egiten hasteko Hik Hasik hau jartzen du mahai gainean, baina entzun egin nahi dizuegu besteoi, eta ea zer ateratzen den elkarrizketa honetatik.

**X.S.:** Hezkuntza komunitatean oraindik apurtu beharreko inertzia gehiegi daude eta Hezkuntza Proposamena horretara dator. Agian beste bultzada eta ekimen berriak beharko ditugu, eta ez seguraski Hik Hasirenak bakarrik. Hik Hasik askotan asmatu duen bezala, agian berak hasi eta beste batzuekin batera zerbait indartsuagoa

egiten ahalegindu beharko du.

Arantxak dioen bezala, Hik Hasiren ezaugarri eta egiturarekin jarraitu behar dugu ahalik eta jende gehiena konbentzitzeko eta kutsatzeko elkarrekiko konfiantzan gauzak egin ditzakegula eta gure esku hartu behar dugula etorkizuna.

**A. U.:** Burujabetza. Burujabe egin behar dugu.

## Etorkizunaz hizketan hasita, ezin aipatu gabe utzi koronabirusaren ondorioz bizitzen ari garen egoera. Zer irakaspen atera ditzakegu konfinamenduaren kapitutu honetatik?

**A. U.:** Bizitzak jarri digun ataka berri honetan hezkuntzatik imajinatu ere egiten ez genuen tresnekin erantzun dugu. Erdigunean jarri dugu umeekin eta familiekin harremana mantentzea eta horretarako erabili ditugu lehen erabiltzen ez genituen tresnak. Orduan, orain erronka izango da konfinamendu garaian urratu ditugun bideak, martxan jarri ditugun iniziatibak eta pentsatu ditugun gauzak hor geldituko diren bere horretan edo ikasi dugunetik zerbait eramango dugun gure praktikara bueltatzen garenean.

**X. S.:** Nik uste dut hori dela hezkuntza komunitateak daukan erronka. Eta Hik Hasik erronkatzat hartu dezake hor bere ekarpena egitea: inertzia zaharrak zein diren konturatzeko eta apurtzeko, dinamika berri eta positiboak nabarmentzeko, zabaltzeko, gai horri buruz eztabaida foro bat sortzeko eta ekarpen interesgarriak partekatzeko.

Izan ere, hainbat gauza nabarmen geratu dira konfinamendu garaian: curriculuma, edukiak emateko sentitzen den presioa eskoletan, programazioa bete beharra, ikuskarien presioa eta abar. Behingoz onartzen dugu egoera honetan ez garela gai horri erantzuteko, eta konturatu gara, gainera, hori ez dela inportanteena. Nabarmen geratu dira gure kontraesanak: aspalditik esaten dugu konpetenzietan hezi behar ditugula, konpetentziak garatzea dela inportanteena, baina gero, esaten digute horretarako lehen egiten genuen guztia egiten jarraitu behar dugula eta lehen ematen genuen eduki guztia ematen. Kontraesan horiek bistaratu

dira eta aukera daukagu orain haurra erdigunean jartzeko, konpetentziak garatzeko egoera edozein delarik ere, konturatzeko haurra erdigunean jartzeak esan nahi duela lehenbizi emozionalki nola dagoen adi egon behar dugula eta horretarako zaindu egin behar dugula. Umea zainduta eta babestuta ez baldin badago ezin baita heziketa esperientzia egokirik bizi.

Konturatu gara zer garrantzitsua den aurrez aurreko harremana, zer garrantzitsua den berdinen arteko harremana, baina baita helduaren begirada ere aurrera egiteko bai ikuspegi konstruktibista batetik baina baita ere zaintza-aren ikuspegitik.

Bi gauzatxo ere nabarmen dauzkagu orain mahai gainean. Bata haurrak ere protagonista bihurtu eta beren lekua eman behar diegula gizartean. Haurrak ez dira kontuan eduki eta herri hezitzailearen ikuspegitik hori aldarrikatzeko eta aurrerantzean horri eusteko momentua da. Eta bestetik, oraindik eskola, familia eta komunitatea oso banatuta daudela konturatu gara, eta zein inportantea den eskola eta familiaren arteko harremana.

Gainera, seguraski, hemendik aurrera beste dimentsio batean garatuko da jarduera hezitzailea: komunitatean. Umeak ez dira joango eskolara irailera arte, baina kalera aterako dira pixkanaka-pixkanaka. Orduan, herria edo komunitatea bihurtu daiteke heziketa gune hemendik aurrera. Aukera berriak sor daitezke herria heziketa gunetzat hartzen hasteko.

**A. U.:** Nik uste dut haurrak bakarrik ez, baizik eta ahulak diren kolektibo guztiak jarri behar direla erdigunean. Lan ikaragarria eta oso interesgarria egin da haurren inguruan, baina badaude kontuan eduki beharko genituzkeen beste kolektibo batzuk ere —aitona-amonak, behar bereziak dituzten pertsonak, tratatu txarrak jasotzen dituztenak, bakarrik daudenak...—. Ezin dugu geure burua bakarrik salbatu; salbatzen gara denok edo ez gara salbatzen. Agian herri hezitzaileen planteamenduan haurrak esaten den lekuan ahulak esan daiteke, herriak bizigarriagoak egin horientzat ere eta biziguneak sortu heziguneak baino.

# ESPERIENTZIAK

COVID-19 ETA ADIMEN EMOZIONALA

## COVID-19a eta itxialdia opari bihurtzeko aukera

Adimen emozionala, bizitzarako hain garrantzitsua eta, askotan, ahaztuta dugun ikasgaia. Garapen pertsonala ahalbidetzen duena eta une zailetan bereziki horren falta sumatu duguna, orain koronabirusagatik etxean itxialdian gauden honetan bezala. Ez al litzateke ederra izango gure gaur egungo haur eta gazteak bizitzan aurrera ateratzeko, zoriontsu izateko eta bizitzako aldaketei egokitzeko tresnez baliatzea? Utopikoa eta zaila dela pentsatuko dute batzuek, Madinabeitiak ez du uste. Gure beldurrak eta aurreiritziak alde batera utzita eta benetan garrantzitsua zer den argi badugu, bide honetan murgildu ahal izango gara, hezitzaile, bidelagun edo guraso moduan.



**Itsaso MADINABEITIA**

**Psikologoa, gizarte-  
hezitzailea eta irakaslea**

**I**kasleak ikusi ahal izateko, lehen-dabizi gu zer garen ikusi behar dugu, erresonantzia emozionalak identifikatuz, eta gure egoa ere kontrolpean izanez. Epaiketarik egin gabe, eta nik sinesten dudana begirada bakarra eta onena ez dela argi utziz, nire bizipen eta egiteko modua partekatuko dut hurrengo orrialdeetan. Kale-hezitzaile, gizarte-hezitzaile, psikologo zein Haur Hezkuntzako irakasle gisa aritu izan naiz, eta ibilbide horretan landu dudana begirada DBHko geletara eramateko aukera izan dut azken urteotan, Balio Etikoetako irakasle gisa lanean ari naizen honetan. Ez dut ikasgai

edo edukietan zentratuta lan egiten, begirada eta heziketa dira garrantzitsuak niretzat, eta hori lantzea da nire pasioa, bai ikasgai bat lantzerakoan, bai Haur Hezkuntzako gela batean, bai harrera-pisu batean, bai kontsulta batean. Inoiz loturarik izan ez duen eta bizitza benetan latza izan duen gazte batengana hurbildu eta haren konfiantza irabazi behar duzunean, bizitzan jarraitzeko motibazio bat aurkitzen lagundu behar diozunean... orduan hasten zara ikasten zer den nerabe baten bidelagun izatea.

**Konfinamenduaren aurrean zer?**

Egun hauetan, koronabirusa dela-eta denok etxean gaudenez, ezin ditugu eskolak beti bezala eman eta honako erabaki hau hartu dut: ikasleei beren burua ezagutzeko tarte hartzen laguntzea. Horretarako, eguneroko bat idazten ari dira. Eguneroko, nola sentitzen diren, zer pentsamendu dituzten eta zer hausnarketa egin dituzten idatzi behar dute haiek sortutako eguneroko batean. Erlaxatzeko musika entzutea eta gorputza mugitzeko ariketak egitea ere gomendatzen diet. Izan ere, etxean egotea aukera paregabea izan daiteke gure barnearekin konektatzeko. Gure argiak eta itzalak agertzen dira gelditu gaudenean, eta, askotan, ez da erraza. Nerabeak mugatuta sentitzen dira, batzuei etxerako lanek gainezka egiten diete, frustratuta sentitzen dira, eta lagunengertutasunaren falta nabaritzen dute. Zer esanik ez Internet gabe





Kontsumo jasangarriaren inguruan egindako proiektuan arropa jasangarria diseinatu eta josi zuten ikasleek.

daudenak, etxeko egoera zailak dituztenak, harrera-pisuetan bizi direnak edo bestelako egoerak dituztenak. Egoera hobereana duenak ere laguntza behar du. Oraingoan ere, irakasleok garapen pertsonalaren bidean laguntzeko gaudela uste dut, guraso edo tutoreekin batera, noski. Eta ikasleek familiarengan eta beren buruarengan bilatu beharko dute indarra. Adimen emozionalak berebiziko garrantzia dauka gure bizitzan, eta, une hauetan, argi ikusten da hori. Ikasleek esanda dakit egunerokoan idaztea lagungarri zaiela, eta gorputza mugitzea edo erlaxatzea zein lagunekin hitz egitea da gehien laguntzen diena. Garrantzitsua iruditzen zait azken hori, ikasleak ohartzea zerk egiten dien on. Zaindu ditzagun, bada, alderdi horiek gure bizitzako egoera eta momentu guztietan, eta ahalbidetu dezagun gure ikasleek hala egitea, egoera zailetan baina baita onenetan ere.

Begiraden jolasa, biribilaren indarra eta bat-bateko solasaldia hezkide ez ditugun egun hauetan, babes emozionala eta banakoaren espazioa errespetatzea tokatzen zaigula uste dut, esperientzia honek ere gure ikasleak heziko dituelako. Oparitu diezaiegun, bada, ispilu bat, eta ez memorizatu beharreko milaka eduki eta prozedura.

### Lan egiteko modu honen aurrekariak

Itxialdian dauden bitartean proposamen hori egiteko, oso lagungarria izan zait ikasleekin aurretik landuta neukana, gelan sortuta genuen lan egiteko modua, eta horretaz hitz egin

nahi dizuet ondorengo lerro hauetan. Bigarren Hezkuntzan, irakasleok begirada eta gorputza zurrun mantentzen ditugu askotan, autoritatea eta curriculum gure zutabe bakarrak izango balira bezala. Baina nerabeek sentitu behar dute norbaitek ikusi egiten dituela, bai irakasleak, bai ikaskideek, taldean integratuta daudela sentitzeko premia baitute. Heldutasunerako bidea da nerabezaroa, heldu izateko aukera ezin hobea. Jakin-mina dute, energia, eta baita zalantza asko ere. Teknologia berriekin hazi dira, eta informazio asko daukatela esaten dute, baina ez dira gai informazioa kanalizatzeko, aukeratzeko edota hari uko egiteko. Azkar aldatzen den gizarte likido honetan, beraz, aukeratzeko, kritikoak izaten eta egokitzen irakatsi beharko genieke.

Euren etorkizunaren jabe eta arduradun direla sentitzeko, ikasgaietan irakasten dizkiegun prozeduren eta edukien helburua zein den azaldu behar diegu. Nire ustez, proiektuen bidez eta begirada zabal eta sakon batetik lortu daiteke hori.

### Proiektuen magia: interesa eta motibazioa abiapuntu

Eta nola hasten da proiektu bat? Biribilean jarriz eta elkarriz begiratu, mahairik gabe, epaiketarik gabe eta erantzun bat eta bakarra eman gabe. Orduan hasten da solasaldia. Adibide bat jartzearen; egun batean, DBHko lehenengo mailako gela batean biribilean eserita geundela, ea zeri buruz hitz egin nahi zuten galde-

tu nien. Batzuek futbolari buruz hitz egin nahi zutela esan zuten, hori zela gustuko zuten bakarra. Eta hor pasa zituzten minutu batzuk futbolari buruz hitz egiten, horri buruz hitz egitea bakarrik interesatzen zitzaizela esanez behin eta berriz. Galdetu nien nola bideratuko luketen eurek proiektua, zer berri ikasi dezakegun futbolari buruz, zer ematen dion futbolarik gizaritari...

Egia esan, ez nuen etorkizun handirik ikusten eztabaida horretan, eta, momentu hartan, ez nekien gaia nondik bideratu trebatu beharreko konpetentziak lantzeko, euren gustuko gaia alde batera utzita ez bazen. Proiektuaren momentu horretan, galdera irekiak egiten dizkiet, haiek proiektua bideratu arte edo niri proiektua nondik bideratu daitekeen bururatu arte. Hori gertatzen denean, nik pentsatutakoa proposatzen diet bueltan, motibatuta, euren ideia ere izango balitz bezala. Baina egun horretan ez nuen ezer buruan. Arnasa hartu, minutu batzuk itxaron, eta, gehienetan gertatzen den moduan, pazientzia edukita eta denbora galtzen ari garen pentsamendu hori alde batera utzita, gelako neska batek eman zuen proiektuaren giltza izango zen iritzia.

“Niri gaizki iruditzen zaidana ondorengo hau da: futbolari batek mediku batek baino gehiago irabaztea”. Horren ondotik, eztabaida sutua piztu zen, bi eskola-ordu (gure kasuan, bi aste) iraun zuena eta etxean ere komentatu zutena ikasleek, gero gelan gurasoen iritzia ere aipatuz. Ondo eztabaidatzen zutela eta oso motiba-

**“Begiradaren jolasa, biribilaren indarra eta bat-bateko solasaldia ez ditugun egunotan, oparitu diezaiegun ispilu bat, eta ez memorizatu beharreko milaka eduki eta prozedura”**

## ESPERIENTZIAK: COVID-19 ETA ADIMEN EMOZIONALA



Ikasleei beren burua ezagutzeko tartea hartzen lagundu die egunerokoa idazteak.

tuta zeudela ikusita, hausnarketa hori beste lanbideetara zabaltzea proposatu nien, eta gure gizartean zein lanbide diren garrantzitsuenak eta zergatik eztabaidatu genuen. Ados egon ziren, eta lan horretan aritu ginen bi hilabetez. Landutako lanbideak euren gurasoenak eta nik proposatutako beste lau izan ziren. Zerrenda hori osatzeak ahalbidetu zigun bakoitzaren familiari buruz gehiago jakitea, kontu pertsonalak partekatzea eta talde-kohesioa sortzea (gurasoekin gehiago hitz egin zuten haien lanbideaz, ea gustuko zuten, ea beste zerbait ikasi nahi zuten gaztetan...). Bakoitzak bere zerrenda osatu zuen, gizartean lanbideek duten garrantziaren arabera; ondoren, talde txikitik lanbide berri bat adostu eta landu zuten, eta, azkenik, talde handian bakarri landu genuen. Emagina izan zen lanbide garrantzitsuenak haientzat, bizitza ematen digutelako, eta, bigarrenik, erizainen nagusia, erizainen lana koordinatzea garrantzitsutzat jo zutelako. Kasualitatez, zaintza eta bizitza lehen postuan jarri zituzten, gehienetan emakumeen lanak.

Eta hori guztia futbolari buruz hitz egin nahi zutelako. Momentu hartan ezetz esan izan banie, hori ez delako lantzeko gai interesgarri bat edo ez nuelako ikusten zerbait garrantzitsua ikasiko zutenik, ez genituzkeen landuko honako hauek: komunikatzeko gaitasuna, enpatia, gizarteari buruzko hausnarketa, autoestimua, giza

eskubideak (epaitegiko itzultzaileen lana atera zen, eta balio handia eman zioten epaiketa baten aurrean denek aukera berdina izateari), teknologia eta zientzia zenbat balioesten duten, kapitalismoa eta pertsonen arteko berdintasuna, lan bat edo bestea izan...

Zerrenda osatu ondoren, soldatei dagokienez, ikasleek sortutako zerrenda eta gaur egungo zerrenda erreala alderatu genituen. Bide batez, esan genuen ondo sentitzeko edo balioetsiak sentitzeko garrantzitsuenak ez dela beti soldata, baizik eta gustuko zerbait egitea, besteek zure lana goraiatzea, egiten duzun horretan sinestea... horrek guztiak duen garrantziaz ere hitz egin genuen. Baina errealitatea ere bizi dute gure gazteek, eta, soldata altuak nork dituzten ikusita, kapitalismoaz hitz egiten hasi ziren. 12 urterekin, kontsumismoan, herrialdeen arteko desorekan, haurren esplotazioan eta antzeko gaitan murgildu ginen. Dokumental batzuen zatiak jarri nizkien gelan, eta zenbait datu eskaini nizkien, kontzeptu eta eduki gehiago eskuratu zituzten beren hausnarketa garatzeko. Ez zen nire helburua, baina, gaiarekin jarraitu izan bagenu, Matematika, Gizarte, Hizkuntza, Geografia... ez al dira ikasgai guztiak sartzen gai honetan edo beste batean? Ez al du gai honek aukera ematen curriculum bermatzeko garrantzitsuak diren hainbat kompetentzia lantzeko?

### Motibazioak markatzen du bidea

Kompetentziak zeharka landu genituen, haien interesak eta landu beharreko helburuak lotuz. Baina garrantzitsuenak ikasleen motibazioa piztuta mantentzea da: proiektua haiena dela eta zentzua duela sentitu behar dute, emozioarekin konektatzen den guztia eta gorputzean sentitzen diren esperientziak direlako barruan gelditzen zaizkigunak eta bizitzarako baliagarriak direnak.

Horregatik, taldeka ariketa bat egiten ari ziren egun batean, neska bat margotzen zegoela ikusi nuen. Berarengana hurbildu nintzen, eta zertan zebilen galdetu nion. Koaderno itxi zuen bat-batean, barkatzeko eta lanean jarraituko zuela esanez. Lasai egoteko esan nion, bere marrazkiak interesatzen zitzaizkidalako; anasa lasai hartu ondoren, bere marrazkiak erakutsi zizkidan. Eta orduan arropa margotzen ari zela ikusi nuen, diseinu benetan landuak. Oso politak zirela esan nion, artista bat zela. Haren irribarrea eta taldekideek eman zioten babesa izan ziren proiektu berriaren zergatia.

Galdetu nion ea gustuko zuen margotzea, eta baietz esan zuen; beste taldekide batek ere gustuko zuela erantzun zuen, eta beste batek josi egiten zuela, amonak Andaluziatik bidalitako oihalekin. Hurrengo saioan biribilean eseri, eta modarekin lotuta dauden gai eta egoerei buruz hitz egiten hasi ginen: estereotipoak, talde-pertenentzia, ekologismoa, kontsumismoa... Guztion artean erabaki genuen kontsumo jasangarriaren inguruko proiektua egitea. Talde txikitik hasi ziren lanean, arropa jasangarriak sortu, web-orriak, denda jasangarrien ereduak, kontsumitzaileentzako dekalogoak... Harrituta gelditu nintzen lanak bukatutakoan egin zituzten aurkezpenekin.

Aldi berean, hirugarren mailakoekin politika eta demokrazia kontzeptuak landu genituen. Hasiera batean, gaia ez zitzaien erakargarri iruditzen; izan ere, gai bat askotan errepikatzen denean modu berean azalduta, indarra galtzen du, eta ez da barneratzen. Eztabaidatzea gogoko zuten, ordea, eta biribilean txandak hobeto errespetatzen zituzten. Feminismoaz



eztabaida luzeak izateko gai zirela ikusita, estatu bat eratzea proposatu nien. Oso ideia ona iruditu zitzairen eta hiruhileko osoa eman genuen horretan. Jakin gabe, politika egin zuen 28 ikaslez osatutako taldeak, batzuetan nik proposatutako legeei buruz hitz eginez eta, beste batzuetan, eurek proposatutakoei buruz: garraio mota, adopzioak, hezkuntza mota, zergak, osasuna, armada, mugak, diru-laguntzen kudeaketa, etxebizitzaren gestioa eta egiturak, parkeak, haurdunaldi subrogatuak, abortua, energiaren kudeaketa, independentzia edo erreferendumak.

Lehen egunetan adostu genuen zein izango zen haien erabakitzeke modua, independizatzeko aukera egongo zela erabaki genuen, eta nola gauzatu zen ere zehaztu genuen. Ikasleen iritzia asko aldatu ziren erabakiak haien ardura bihurtu zirenean, beren ideiak babestu behar zituztenean eta erabaki bakoitzak dauzkan ondorioez jabetu zirenean. Bakarkako lan batekin bukatu zen proiektua, bakoitzak bere estatu propioaren legeak idatziz eta argudiatuz. Askok aipatu zuten modu honetan inoiz baino gehiago ikasi zutela. Haien esanetan, uste asko aldatu egin zituzten besteiei entzunez, eta horretaz ikasi egin zuten.

Nire iritziz, egin eta sentitu zutelako ikasi zuten, pozik ikusten zitzairen, besteekin komunikatzeko duten behar hori asetzen zutelako. Eta, berriz ere, proiektu honek Geografia, Historia, Biologia, Ekonomia zein Hizkuntza lantzeko atak ireki zitzaieken.

### **Giroa konfiantzazkoa eta lasaia denean**

Eta horrela sortu ziren beste hainbeste proiektu eta galdera zabalaren osteko hizketaldi aberatsak. Askotan, haien elkarrizketak entzun ahala egiten nizkien galderak, eta eskua altxatzen zuten denek erantzuna eman nahian, haiek bizi eta sentitzen zutenaren inguruko galderak zirelako; erantzun bat bazutelako eta bazekitelako esaten zutena esanda ere egokia izango zela eta eskertua. Adibidez, zergatik jolasten duten bideo-jokoetan, pijo bat zer den haientzat, pertsona jator bat zer den, bizilagunekin zer harreman duten, Gabonetan suertatzen diren familia-liskarren atzean zer dagoen, zoriontasunaren topea zein den nola jakin, kartzelak hezten gaituen, beldurra sentitzea biologikoa den edo ikasi egiten den... Elkarrizketan, pentsamendu berriak eraiki, direnari eta gizartearen gertatzen ari denari buruz hausnartu, eta, azken finean,

hazi eta hezi, errespetuan oinarrituta eta epaituak sentitu gabe. Aske sentitzen ez garenean ez ditugulako gure hegoak zabaltzen.

Harrigarria bada ere, biribila eginga dute batzuetan gelan sartu baino lehen, eta isilik egoten dira ni eseri arte. Solasaldiaren erdian taldekide bat bere barruan duen mina adierazten hasten denean edo pasarte bat kontatzen duenean, besteak altxatu egiten dira eta besarkatu egiten dute. Oso ausarta izan dela esaten diodan bati eta haren aurpegian irribarre lotsati bat agertzen denean, orduan lantzen dira enpatia, komunikatzeko estiloak, hausnarketa eta talde-kohesioa. Eta ni naiz orduan gorputz osoan zirrara sentitzen duena. Baina, zalantzarik gabe, talde-kohesioa eta errespetua dagoen taldeetan gehien gustatzen zaiena ondorengo dinamika hau da: biribilaren erdian jarri eta banan-banan bere ikaskideen mezu positiboak entzutea; hau da, beraietaz gustatzen zaiena entzutea. Urduri jartzen dira, baina denek nahi dute erdian egon, denek nahi dute entzun besteentzat diren hori. Eta hori guztia jasotzen ari den ikaslea ikusten dudanean, begiak bustita, hankak dardarka dituela, orduan ere nire gorputzaren atal guztietan sentitzen dut zirrara.

### **Ikasleek egunerokoan idatziak:**

- “Gauetan oso aspertuta nagoenean egunerokoa idazteak lagundu egiten dit eta erlaxatu egiten nau. Idazten jarraitu nahi dut handitan seme-alabak izaten baditut hau erakusteko eta haiek jakiteko nola bizi izan genuen hau”, 2. DBH.
- “Nire amak koronabirusa dauka eta orain nire aitaren etxean nago. Egunerokoan pentsatzen eta sentitzen dudana guztia idazten dut eta horrek lagundu egiten dit”, 1. DBH.
- “Nire sentimenduak eta pentsatzen dudana esaten laguntzen dit. Gauza asko gordetzen ditut niretzako eta asko laguntzen dit”, 2. DBH.
- “Egunerokoarekin ondo sentitzen naiz, ideia ona iruditzen zait. Baina beste etxerako lanekin pixka bat agobiatuta nago, ezin dut hainbeste egin. Baina egunerokoa egun guztietan egiten dut, behar dudalako”, 1. DBH.

### **Konturatu al zara zerk egiten dizun on?**

- “Erlaxazioa egin ondoren oso ondo sentitu naiz. Nire amak eman dizkit masajeak eta nire gorputza oso lasai sentitu dut. Gero nik eman dizkiot amari eta hark ere gauza bera sentitu du. Musika entzutean pena sentitu dut, abestiak tristura transmititu dit eta ezin izan dut bukaera arte entzun”, 1. DBH. (Eskolako azken bost minututan erlaxazioa egiten dute eta horrek etxean jarraitzen dute, familiakoekin eginez).
- “Konturatu naiz logela txukuntzeak on egiten didala”, 1. DBH.
- “Ondo sentitzen naiz bideo-jokoetan jolasten, lagunak entzuten ditut eta horrela badakit ondo daudela”, 1. DBH.

### **Zer iruditzen zaizu biribilean esertzea?**

- “Pila bat gustatzen zait taldea garelako sentitzen dudalako”, 1. DBH.
- “Besteek pentsatzen dutena hobeto ulertzen laguntzen dit, aurpegi guztiak ikusi ditzakedalako”, 1. DBH.
- “Besteak ulertzen laguntzen dit, haien pentsamendua eta iritzia adierazten dutelako”, 3. DBH.
- “Asko gustatzen zait elkarrekin biribilean hitz egitea, asko erlaxatzen nau. Horren falta nabaritzen dut orain”, 1. DBH.

# EKARPENAK 1

COVID-19 ETA ONLINE IRAKASKUNTZA

## Hamabost iradokizun konfinamenduko online irakaskuntza hobetzeko

Egun hauetan online irakaskuntzaren inguruko testu anitz irakurtzen ari gara sare sozialetan, aldizkari espezializatuetan eta artikulak akademikoetan ere. Bistan da online irakaskuntzak irakasleari eskatzen dion funtzioa zeharo aldatzen dela. Baina ez du hori bakarrik aldatzen: ikaslearen papera, landu beharreko edukia, erabiltzen ditugun estrategia metodologikoak zein gurasoei eskatzen zaizkien marko eta ahaleginak ere zeharo aldatzen ditu.

**O**rain, online egiten ari garena, garden eta publiko gelditzen da. Hori dela eta, ikusten ari da irakasleok gure aurrez aurreko saioetan irakasteko ditugun strategiak eta ebaluatzeko erabiltzen ditugunak, batzuk zinez eredu-garri, beste batzuk berriz, hobe daitezkeenak.

Zaila da kontabilizatzea zenbat gela dauden Euskal Herrian oraindik “magistozentrikoak” direnak, baina esaten ahal dugu, hanka sartzeko beldurrik izan gabe, oraindik asko



Irene LOPEZ-GOÑI

NIEko pedagogia arduraduna

direla. Irakasleok ikasle ginela bizi izan genuen eredu erreproduzitzen dugula ikerketek egiaztatua duten zerbait da. Ondorioztatzen den beste hipotesia da, estrategia berriztatzaile batzuk erabiltzen direla tarteka, baina sakonean berdina den eredu magistozentrikoa errepikatzen dela.

Beste muturretik, akaso beheko mailetatik etorri zaiguna, aktibismoarena da. Bistan da ikasleak ikastea nahi badugu, “aritu”, “ekin”, “dihardu” behar duela. Hori nahikoa al da? Ez, noski. Jarduteak ez du ziurtatzen kognitiboki behar den eran ezagutza eraikitzen ari denik.



Fultxo CRESPO

NIEko IKT arduraduna

Horretarako, irakasle profesional-sortzailea behar da. Eraikuntza kognitibo hori nola egiten den, aurretik zer dakien eta jarraian zer eskaini jakiteak curriculumaren menperatzea eskatzen du. Irakasleak, profesionala den neurrian, ezagutza hori ere badu. Horrez gain, ikasleari proposamenak nola aurkeztu, nola motibatu, zer jardueraren bitartez eskaini... horrek guztiak irakasle sortzailearen paperean jartzen gaitu.

Aldi berean, ezin dugu alboratu jardueraren presentzialak duen ezaugarririk garrantzitsuenak, hots, zuzeneko interakzio aberatsa, galdu egiten dela



eta gabezia hori konpentsatzea zinez zaila dela, zenbait kasutan ezinezko egiteraino. Zuzeneko saio sinkronikoan dagoen interakzioan ditugun erreferentzia paralinguistikoak, ikasleari bidaltzen diegun informazio osagarria eta ikaslearengandik jasotzen ditugun seinale emozional aberatsak, galdu egiten dira egoera honetan. Beste aldetik, ez dugu agian behar adina kontuan hartzen familia bakoitzean, kasuistika bereziak eraginda, sor daitekeen tentsioa: lanaren galera, ahaideen osasun egoerarekin kezkek, telelanak eskatzen duen lan karga, ikasleen motibazio falta, ordu-tegi estuak, etabar.

### Aldaketek denbora behar dute

Beste aldagai garrantzitsuak gure ikasleen ohiturak dira. Ziur aski, oso intentzio onarekin, irakasleok ohitu ditugu ikasleak dituzten behar guztiei segituan erantzuten eta frustrazioari kasik lekurik ez uzten. Online ikaskuntzak autonomia zabala eskatzen du, norberaren diziplina handia eta akatsei aurre egiten jakitea. Irakasleok badakigu, aipatutako ikaskuntza horiek denbora luzea eskatzen dutela eta ezin ditugula epe murriztean lortu. Hilabete eskas batean ikasle arduratsu, autonomo, erresilienteak eta frustrazioari aurre egiten dakitenak heztea ezinezkoa da, hezkuntzaren miraria litzateke.

Online modalitateak eskatzen dituen aldagaiak zaintzen baditugu, ordea, ez dugu zertan kalitatea galdu edo jaitsi behar. Era azkarrean eta beharrek eraginda, Euskal Herriko hamai-ka irakasle ikastaroak egiten ari dira eta tutorialak aplikatzen jarri dira, historikoa den mugimendu bateko partaide bihurtuz. Horrela, era labur batean, tresneria digitala erabiltzeko kompetentzia asko ari da garatzen, eta hori positiboa da.

Modalitate honen berezko ezaugarriak alde batera utzita, bada azpimarratu beharko genukeen beste aldagai garrantzitsu bat ere: ikaskuntzaren protagonista ikaslea dela. Izan ere, egoera berezi honetan, ikaslearen gain gelditzen da ardurarik handiena eta horrek bide edo estrategia didaktiko bereziak eskatzen ditu irakasleon aldetik.

### Zer iradoki dugu guk?

Ikastolen sarean plangintza bat aurrera eramaten ari gara hasieratik, non lehen aipatutako zailtasunei aurre egiten saiatzen ari garen. Lehen unetik EHI Euskal Herriko Ikastolen Elkartek ikastolen eskuetan jarri zituen baliabide digital guztiak eta ahaleginak egin zituen ordenagailu edota Internet ez zuten familiei iristarazteko, lan hagitz handia burutuz.

Baldintza onenetan ere, oztopoak agertzen dira. “Zarata” sortzen da anitzetan online komunikazioan, konektagarritasun arazoak, mantsotasuna orriak kargatzeko garaian, prozedura berriak ikasi beharra, etabar luze bat, ikasle zein irakaslearen pazientzia maiz proban jartzen dutenak.

Hori dena kontuan hartuta, zer egiten ahal dugu gure online irakaskuntzan aurkitzen ari garen oztopoak gainditzeko? Hau da gure buruari galdetu dioguna eta akatsetatik eskarmentua hartuta, 15 iradokizun hauek zabaldu genituen gure ikastolan, orain irakasle komunitatearekin partekatu nahi ditugunak:

### Iradokizun orokorrak

- Lehenetsuna eman alderdi emozionalari: ikasleei eta familiei telefonoz deitu, haien egoera ezagutzeko interesa jarri, zer beste gauza egiten ari diren jakin, nola sentitzen diren...
- Tutorearen papera funtsezkoa da egoera honetan (ikaslearen alderdi emozionalean laguntza, familiaren egoeraren ezagutza, lankideekin eta orientatzaileekin koordinazioa, ikaslearen lan kargaren kontrola...). Berak zentralizatu behar du familiarekiko komunikazioa.
- Saioak agurrarekin edo asanblada moduko batekin hasi. Sinkronikoak diren online saioek garrantzi handia dute. Gure ikasleak gu egunero ikusteak eta beraiek gu ikusi eta entzuteak berebiziko garrantzia du. Motzak badira ere euren motibazioa piztuko dute.
- Lan egiteko ordutegi bat proposatu (malgutasunez jokatuz etxeetan dagoen kasuistika zabala kontuan hartuz).

**Online modalitateak eskatzen dituen aldagaiak zaintzen baditugu, ez dugu zertan kalitatea galdu edo jaitsi behar. Era labur batean, tresneria digitala erabiltzeko kompetentzia asko ari da garatzen, eta hori positiboa da.**

- Zentro mailan erabiliko diren hezkuntzarako plataforma, komunikatzeko bideak eta aplikazioak bateratu, ikasleek ezagutzen dituztenak lehenetsiz. Ez da esperimenduekin hasteko garaia, ezta maila berebean irakasle bakoitzak lana bidaltzeko gogokoen duen prozedura erabiltzekoa ere.
- Zerbait gaizki aterako dela ziur egon. Pazientzia handiarekin jokatu eta umorea (ez ironia) erabili.
- Horrenbeste tresna digitalen artean konfiantzarik sentitzen ez baduzu, lasai egon. Prozedura digitalak eta trukuak ikasteko irekita egon, egunero sortzen diren errokeni erantzuteko. IKT arloan gehien dakiena ere ikasten ari da egun hauetan.
- **Gogoratu guztiontzat berria den egoera baten aurrean gaudela. Momentu batzuetan gure erantzuna ez da agian perfektuena izango, baina ahalik eta duinen izaten saiatzen ari gara. Ditugun ikaslearen ongizate eta garapen integralak kezkatzen jarraitzen gaitu —gu etxean egonda ere—, izan ere gure profesionaltasuna ez baitago konfirmatua.**
- Zure lana antolatzeko ordutegia jarri. Zuk ere atsedena hartu eta zeure burua eta familia zaindu behar dituzu.

# ZENBAIT IRADOKIZUN DIDAKTIKO

1. Curriculumaren jorraketa egin. Oinarrizko helburuak aukeratu irizpide honekin: **kompetenzialagoak direnak hautatu**.
2. Ikasleek autonomoki egin ditzaketen jarduerak eta egoera honetan talde lanetan bideragarriak direnak hautatu edo sortu. **Jarduerak zatitu azpi-jardueretan** ahal delarik. **Sinpletasuna da giltza. Ikasleengan ditugun espektatibak egokitu**.
3. **Formatu ezberdinetan pentsatu** (ez bakarrik linguistikoan) eta ikasgai instrumentalez gain, Artea eta Gorputz adierazpenekoak proposatu. **Bisualki** pentsatu, bai azalpenak ematean bai eta ekoizpenak eskatzean ere. Sormena bereziki baloratu eta partekatu. Bidaltzen duguna anitza eta berria izan dadila, ikasleek motibazioa gal ez dezaten.
4. Informaziorako dokumentu bat edo gehienez bi eman. Baliabideekin berdin, ez banatu asko batera (Internet loturak, bideoak...) arreta galtzeko edo ez begiratzeko arrisku handiagoa baita kasu honetan.
5. **Aginduak ahalik eta zehatzenak** izan daitezela eta elementu hauek **beti** ager daitezela:
  - Zer egin behar du
  - Zer emaitza espero da (testua, grafikoa, marrazkia...). Hobe produkzio bakarra.
  - Gutxi gorabeherako luzera (egokia denean)
  - Noizko
  - Nola igorri irakasleari
6. Komunikazioa zaindu:
  - Ahozkoa lehenetsi
  - Hitz garbiak erabili
  - Mezu zuzena eta sinplea
  - Mezu motza
  - Ulertzeko unibokoa edo adiera bakarrekoa
7. Helburu zailagoen kasuan, **saio sinkronikoetan (bideokonferentzietan) partaide kopurua mugatu** (talde homogeneoetan zatitu), hala nola feedbacka edo balorazioa emateko garaian.
8. Jada digitalki egiteko prest dauden jardueri lehentasuna eman (liburu edo koaderno digitalak, autozuzenketa dutenak), irakasleak daukan lan zama ez handitzeko. Izan gaitezen praktikoak.
9. Adinaren arabera, bi, hiru edo irakasle gehiagoren artean **diziplinarteko jarduera sinpleak** proposatu. **Ordea, ez bidali proiektu konplexuak**. Izan ere, proiektu konplexuak kudeatzea, fisikoki egonda ere, eskakizun handiko zeregina da.
10. **Ebaluazio jarraikia: feedbacka eman**. Bidali epe zehatz baterako bueltatzen ahal duzuna, ez gehiago. Ahal delarik, **ahozko atzeraelikadura** eman, ez beti idatzia (irakasleak ezin gara erre ahalegin honetan eta era sinplean eta ulergarrian idazteak denbora gehiegi eskatzen digu). Horretarako, izan badira bideoa edo audioa grabatzen dituzten hainbat tresna: Screencastify, Talk and Comment...
11. "Zuzentzeko denbora" ez duzula ikusten baduzu, agian lan gehiegi bidaltzen ari zarelako da, erritmoa egokitu. Hobe **gutxi bidaltzea eta horien ebaluazio jarraikia egitea** asko bidaltzea eta atzeraelikadura ez bueltatzea baino. **Gutxiago gehiago da**. Erregistro orriak prestatu landutako helburuekin eta egiaztatu.
12. Ikasleen autoebaluazioa mantendu eta ebaluazio irizpideak (zuzenak, laburrak eta argiak) komunikatu ikasleari. Maiztasunez egin alor akademikora mugatu gabe.
13. Errepatatzea ezagutzak finkatzeko estrategia egokia da, hala nola horiek transferitzeko. Ez izan beldurrik ikasitakoa errepikatzeari. Ikasitakoaren gainean jarduera ezberdinak egiten ahal dira ikaskuntza hori beste era batera edo beste ikasgai baten gainean aplikatzeko, benetako ikaskuntza finkatuz eta ikasitakoa transferituz. Gogoratu lantzen ditugun hainbat eduki (ingurune arlokoak, esaterako) hainbat ikasmailatan errepikatu egiten direla, beraz ez larritu landu gabeko kontuak gelditzen badira.
14. **Ez ahaztu pertsonen arteko harremana dela ezaugarriarik garrantzitsuen**a. **Bultzatu talde lana, ikasle eta lankideen arteko harremanak**, laguntzak eta konexioa.
15. Barkatu zure ikasleen konplikazioak, baita izango dituzten hainbat jarrera desegoki. Lehen aipatzen genuen moduan, **umorea erabili ahalik eta gehien**.



# EKARPENAK 2

IKT-AK ETA KONPETENTZIA DIGITALAK HEZKUNTZAN

## ‘Ikuspegi teknopedagogiko kritikoa’ eraikiz

*IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan* izeneko liburua argitaratu du UEUK, EHUrekin elkarlanean, IKTen alorreko 32 adituk idatzia eta Mikel Iruskietak, Montse Maritxalarrek, Amaia Arroyo-Sagastak eta Abel Camachok koordinaturik. Bi erakundeek 2016-2017 ikasturtean abian jarritako graduondokoa dago liburuaren oinarrian.



Zertan laguntzen dio teknologiak hezkuntzari? Zer interakzio berri ematen dio teknologiak ikasleari? Ikasleen eta irakasleen arteko harremanean, nola lagun dezake teknologiak? Teknologiaren bitartekotza erabilita, noraino irits litezke ikasleak? Zer muga gainditzen lagun diezaioke teknologiak ikasleari? Une honetan, koronabirusaren krisiak ikastetxe guztiak itxi dituen eta irakasle asko eskolak modu birtualean ematen ari diren une honetan, inoiz baino indar handiagoz jarri dira mahai gainean teknologien eta hezkuntzaren uztarketaren inguruko galderak. Hilabete batzuk lehenago, itaun horien inguruko hausnarketak bildu zituen UEUK eta EHUK elkarlanean argitaraturiko *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan*

liburu mardulak. Erantzunak askotarikoak dira; izan ere, aditu ugari parte hartu dute liburuaren osaketan, baina iparrorratz berberarekin idatzi dute guztiak euren atala: teknologiaren erabilera irakasteko praktiketan eta ikasteko prozesuetan uztartu behar dela ikusten dute. “Hezkuntza eta teknologia uztartzea moda kontua dela dirudi, baina binomio hori errealitate bat da, eta errealitate horri uko egitea ez da gure aukera —azaldu zuen Amaia Arroyo-Sagasta irakasle eta liburuaren koordinatzaileetako batek aurkezpenean—. Hezkuntzak erantzun egin behar dio ikasleen testuinguru errealari”.

2016-2017 ikasturtean antolatu zuten UEUK eta EHUK elkarlanean heziketa, IKT-ak eta hezkuntzan konpetentzia digitala lantzeko

graduondokoa: *HEZikt: IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan* izenekoa. Graduondokoaren helburu nagusia teknologiak hezkuntzan (eta bereziki euskal hezkuntzan) nola eragin duen (eta nola eragiten ari den) aztertzea da, bai eta horrek ekarriko lituzkeen abantailak eta arriskuak zein diren ikustea ere. Eta, hain zuzen ere, graduondoko horretatik abiatu ondutik ondutik *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan* liburua. Argitalpen berri honekin, maila akademikoan hezkuntza- eta teknologia-gaiak jorratzen dituen euskarazko alorrean zegoen hutsunea betetzea izan da egileen helburuetako bat, Mikel Iruskietak graduondoko irakasleak liburuaren aurkezpenean azaldu zuenez: “Euska-

## EKARPENAK 2: IKT-AK ETA KONPETENTZIA DIGITALAK HEZKUNTZAN

### Liburuak teknopedagogiaren gai, ikuspuntu eta joera nagusien egungo egoeraren berri ematen du puntako 32 eragileren eskutik.

razko bibliografian badaude aldizkari garrantzitsuak eta ekarpen garrantzitsuak, baina bibliografia egiteko beharra badago, eta liburu honek arlo asko eta egile asko hartzen ditu. Eta uste dugu oinarri bat jarriko duela”. Horrez gain, liburuaren bigarren helburua graduondokoa webgunetik harago zabaltzea da: “Graduondokoa online den arren eta nahiko irekia den arren — modularra da eta zatika egin daiteke —, pertsona guztiek ezin dute parte hartu. Liburuarekin, graduondokoaren atea webgunetik harago zabaltzea nahi genituen, jendeak ikus dezan graduondoko honetan zer lantzen dugun”. Hirugarren helburua diziplinartekotasuna lantzea izan da, hezkuntza eta teknologia hainbat ikuspegitik uztartzea: “Gai adituak diren irakasle asko elkartu ditu liburuak. Graduondoko irakasle gehienek parte hartu dugu, eta, gainera, kanpoko jendea ere gonbidatu dugu idaztera, eta horrek ikuspegi ezberdin asko batzea ekarri du”. Lan guztia barnebiltzen duen helburu nagusia, ordea, hala liburuarena nola graduondokoarena, euskaraz ikertzen duen komunitatea sortzea da: “Konpetentzia digitalak, teknologia, hezkuntza, hizkuntzen irakaskuntza eta, oro har, horrelako gaien inguruan hezkuntza formalean eta ez formalean ikertzen duen euskarazko komunitatea sortzea da gure helburua”.

Liburuak teknopedagogiaren gai, ikuspuntu eta joera nagusien egungo egoeraren berri ematen du, eta, horretarako, puntako 32 egile batu dituzte liburura. Iruskietarekin eta Arroyo-Sagastarekin batera, Montse Maritxalar eta Abel Camacho irakasleak

izan dira liburuaren koordinatzaileak. Maritxalarrek azaldu zuenez, “teknologiaren eta hezkuntzaren arloetan Euskal Herrian dugun argazki bat eskaintzen digu liburu honek. Liburuan parte hartu duten idazleak ez dira edonor, arlo horretan adituak dira, eta esparru zabala hartzen dute”.

#### Ikuspuntu kritikoa

Hezkuntza eta teknologia hainbat ikuspuntutatik batzen ditu liburuak, errealitatea biak bereizten saiatzen bada ere: “Alde batetik, eskolak dauzkagu, oro har hitz eginda, betiko praktikak eta betiko materialak erabiltzen jarraitzen dutenak; eta, beste alde batetik, ikasleak ditugu, eskolatik irtetean errealitate digitalean guztiz murgilduta daudenak. Ideia orokorra da gaur eguneko ikasleak, teknologiaz inguratutik jaio eta hazi direnez, adituak direla eta oso iaioak direla teknologietan. Baina ez da horrela. Gu kotxez inguratuta jaio eta bizi gara, baina horrek ez gaitu egiten motor gaitan aditu, edo ez garamatza kotxe batek nola funtzionatzen duen ulertzea”. Ikasleen kasuan ere gauza bera gertatzen dela uste du Arroyo-Sagastak, eta ikasleen testuinguru erreal horri eskolak erantzun egin behar diola nabarmen-tzen du: “Muinera joanda: teknologia geletan txertatu izan da, baina gure ustez, irakasteko eta ikasteko praktiketan uztartu behar da, ikasteko prozesuen izaera kontuan hartuta bideratu eta sustatu behar da erabilera hori, konpetentzia digitala areagotze

aldera, eta ondoren hitz egingo dugu tresnei buruz”. Teknologia digitalek hezkuntzako erronkei erantzuteko modu ugari ekarri dituzte dagoeneko: inklusioa, nonahikotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna eta arreta pertsonalizatua, besteak beste, baita euskal curriculumak inplementatzeko aukera ere. Horiek guztiak, egileen ustez, “uztartu egin behar dira gaur egungo hezkuntzan, euskararen eta euskal komunitatearen ikuspegitik”.

Graduondoko irakasleen ustez, “ikuspegi teknopedagogiko kritikoa” eraiki behar da. “Teknologia eta pedagogia uztartzeko begirada kritikoa eraikitzen ari gara — azaldu zuen Arroyo-Sagastak —. Horrek esan nahi du informazioa, datuak, ikerketa eta ebidentziak kontuan hartuta joango garela eraikitzen, eta baliteke orain baiezkotzat jotzen duguna hemendik bi urtera aldatzea edo birmoldatzea edo guztiz iraultzea: teknologia oso arin aldatzen baita”. Liburuaren egileen aburuz, irakasteko praktikak teknologiaren beharra du, eta orain da teknologia eta hezkuntzak ikuspuntu kritiko batetik bat egiteko unea. Bi egiteko ezartzen dizkiote teknologiari hezkuntza-berrikuntzaren alorrean: “Batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazetan laguntzea edo hobetzea, hots, aurrez aurreko ikaskuntzaren kalitatea hobetzea, eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia ematea, hau da, testuinguru digitalean zentzu gehiago duten atazak eta metodoak bultzatzea.”





**Irakasleei, ikasleei eta komunitateari zuzendua**

Liburuaren egileak irakasleak dira, eta teknologiei begiratzeko ikuspuntu pedagogikoa da, beraz. Arroyo-Sagastak azaldu zuenez, irakasleak dira liburuaren hartzaile zuzenenak, baina ikasleei eta, oro har, hezkuntza-teknologiaren binomioan interesa duten irakurle guztiei zuzentzen zaie, baita gurasoei ere.

Kepa Sarasola UEUko zuzendariak euskal komunitatearentzat oparitzat aurkeztu zuen *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan* liburu berria, UEUren katalogoko 463. zenbakia, eta bere erakundeak argitaletxe gisa egiten duen lana nabarmendu zuen: “Liburugintzaren alorrean, UEUren helburua bikoitza da: azpiegitura bibliografikoa sortzea, batetik, eta arlo teknikoetan

euskarazko terminologia eta sintaxia finkatzea, bestetik. Unibertsitate-mailako ikasketa zein ikerketan bibliografia zabala edukitzea ezinbesteko baldintza da unibertsitate-eredu osasuntsu bat lortzeko. 1978. urtean lehen liburu argitaratu genuenetik, dagoeneko 463 izenburu ditugu gure katalogoan, eta unibertsitate-mailako euskarazko testugintzan dekanoko bilakatu gara”.

**Liburuaren atalak eta artikuluak****LEHEN ATALA: Testuinguru pedagogikoa**

- Garapen teknologikoa eta hezkuntza, *Rakel Gamito Gomez*
- Irakaslea berrikuntzaren aurrean: Garapen profesionala eta ahalduentzea, *Iñaki Murua*
- Egungo metodologia-joerak, *Amaia Arroyo-Sagasta*
- Ikaskuntza-datuen analisia edo learning analytics, *Mikel Larrañaga*
- Ikaskuntza Diseinu Unibertsala: zer den eta nola egiaztatu, *Josi Sierra* eta *Lorea Aretxaga*

**BIGARREN ATALA: Konpetentzia digitalak**

- Konpetentzia digitalen marko orokorra, *Make Irigoien* eta *Xabier Mujika*
- Konpetentzia digitalak LHn eta DBHn praktikan, *Josune Gereka*
- Konpetentzia digitalak Lanbide Heziketan, *Iñaki Telleria*
- Konpetentzia digitalak unibertsitatean, *Urtza Garay*
- Norbere Ikas Alorra (NIA) edo *Personal Learning Environment (PLE)*, *Amaia Arroyo-Sagasta*

**HIRUGARREN ATALA: E-learning testuinguruetarako oinarriak eta aplikazioak**

- E-learningaren iragana, oraina eta geroa: ohar batzuk, *Abel Camacho*
- Ikaskuntzaren egungo erronkak: ikaskuntza formaletik informalerara, *Ainhoa Latatu* eta *Maialen Urbiet*
- Unibertsitatean aplikatutako e-learninga, *Lourdes Guardia*
- Enpresan aplikatutako e-learninga, *Maite Goñi*

**LAUGARREN ATALA: Tresnak eta aplikazioak**

- E-porfolioak, *Lourdes Guardia*
- Online eta blended learning: komunikazio digitala, LMSak eta tresnak, *Juanan Pereira* eta *Amaia Arroyo-Sagasta*
- Hezkuntzarako baliabideak sortzeko estrategiak, gidalerroak eta egile-sistemak, *Mikel Larrañaga*

**BOSGARREN ATALA: Jendartea eta hezkuntza, teknologiaren aukerak eta arriskuak**

- Aukerak: ahalduentze teknologikoa, *Gorka Julio*
- Teknogiaren inklusioa eta inklusioaren teknologia, *Xabier Gardeazabal*
- Interneteko zerbitzu, aplikazio eta bideo-jokoen erabilera desegokiaren arriskuak, *Urko Fernandez Roman*
- Hezkuntza esku-hartzea Interneten arriskuen aurrean, *Nere Amenabar Perurena*

**SEIGARREN ATALA: Hizkuntzen i(ra)kaskuntza**

- Hizkuntzen i(ra)kaskuntza: metodologiaren bilakaera, *Hiart Legarra Uruburu*
- Hizkuntzak ingurune digitalean ikasten eta irakasten: praktikaren eskutik AEKn, *Andoni Tolosa*
- Konpetentzia digitalaren lanketa hizkuntza-arloan: EKI proiektua, *Inma Muñoa*
- Idatzizko eta ahozko hizkuntza-irakaskuntza online, *Mikel Iruskieta* eta *Aitziber Iturricastillo*
- Hizkuntzaren prozesamendurako tresnak hizkuntzen ikaskuntzarako, *Montse Maritxalar*

**ZAZPIGARREN ATALA: Ikerketa digitala**

- Humanitate digitalak eta haien ikerketaren nondik norakoak, *Mikel Iruskieta* eta *Jennifer Isasi*
- Tresna teknologikoak ikerketan, *Arkaitz Zubiaga*
- Corpusak eta beren aplikazioak, *Itziar Aldabe Arregi* eta *Montse Maritxalar*
- Bistarate-teknikak konpetentzia digitaletan, *Oier Lopez de la Calle*
- Ikerketa motak eta legedia mundu digitalean: datu-bilketa eta azterketatik, datu-babes eta zabalkundera, *Jon Altuna*

# EKARPENAK 3

SUSTRAIETATIK AMETSETARA: 0-6 ADITU TITULUA

Kristina Goñi:

“Krisi honetatik aterako bagina gizartearen baloreak aldatu eta gizarteak zaintzaren garrantzia ikusiko balu, ikasketa handia izango litzateke”

Kristina Goñi Elizondoko Baztan haur-eskolako zuzendaria da. Duela zazpi urte 0-6 etapako formakuntza egin zuen, tituluaren lehen promozioan. Orain aditu-tituluaren bigarren ikasturtearen koordinazioa hartu du, eta prestakuntza indarturik abiatuko da irailean. Loris Malaguzzi, Maria Montessori, Rebecca eta Mauricio Wild, Rudolf Steiner (Waldorf pedagogia) eta Heike Freire autoreen ekarpenak landuko dituzte eta Kataluniako nahiz Euskal Herriko esperientzia interesgarriak ezagutzeko parada izango dute, Alvaro Beñaranek eskainiko duen formakuntza pertsonalarekin batera.



**COVID-19ak utzi duen eszenatokia dela-eta ziurgabetasun-garaiak bizi ditugu hezkuntzan, eta biziko ditugu denbora pixka batean. Printzipio pedagogikoak argi izateak lagunduko dio hezitzaile bakoitzari egoera honi aurre egiten, ezta?**

Bai, dudarik gabe. Konfinamendu honetan ikusi dut jendea arras galduta dagoela. Denontzako arras gogorra izan da, baina hemendik zerbait ikasi behar dugu. Krisi hau eraldatu behar

dugu; bai, krisi batean gaude, egia da, baina krisi guztietan aldaketak izaten dira, eta izugarriko aldaketak ari gara ikusten. Aldaketa guztietan arriskuak eta aukerak daude. Nik errango nuke oztopo edo arazo gisa ikus daitekeena, aukera bilakatu behar dugula. Zertarako? Gozatzeko, hausnartzeko, partekatze eta ikasteko. Orain da garaia gure eskola nola dagoen aztertzeke; zer eskola mota nahiko genukeen pentsatzeko unea da. Gure hezteko moduak egokienak dira? Haurrari begiratzeko moduak aztertzeke momentua da, egokienak dira? Ez? Bai? Zer hobetu dezakegu gure pedagogian? Gure egunerokotasunean?

Printzipio pedagogikoak edukitzea oso garrantzitsua da. Baina niretzako garrantzitsua da gu, hezitzaileok, nola gauden. Ongi egoten bagara, haurrekin ongi egongo gara. Konfinamendu honetatik beldurrekin aterako gara, baina beldur horiekin lanketa pertsonal bat egin behar dugu. Lehenik onartu beldur horiek, sentitu beldur horiek eta, ondoren, landu. Berrit diot, hezitzaileok ongi bagaude, haurrekin ongi egonen gara. Bertzela, pedagogia beltza



transmitituko diegu, gure beldurra transmitituko diegu. Eta hori ez da gure helburua, gurea umeei ongizatea eskaintzea da. Horregatik, niretzako garrantzitsua da nondik abiatzen garen eta nora goazen argi izatea.

Hezitzaile bezala garrantzitsua iruditzen zait haurtzaroz dugun irudia. Zer da guretzako haurtzaroa? Zer irudi daukagu haurraz? Zer da guretzako haurra? Zer da guretzako eskola? Ondoren, eskola bakoitzak bere pedagogia eraikiko du, bere helburu orokorrak izango ditu, eta bere zutabe metodologikoak izango ditu, horren guztiaren koherentzia erakutsi behar du. Bakoitzak pedagogia hau barneratua badu, aise errazagoa izango du hemendik ateratzea, eta baita segurtasuna sentitzea eta haurrei segurtasun hori transmititzea, euren bidelagunak izanez. Printzipio pedagogikoak edukitzea eta barneratzea oinarritzkoa da gure haurrak hezteko.

### **Etengabeko formazioa oso garrantzitsua da hezkuntzan. 0-6 etapako hezitzaileek formazio-egarri handia erakusten dute. Zergatik uste duzu hain garrantzitsua dela formazioa etapa honetan?**

Lehendabiziko gauza errango nuke, niretzako etengabeko formakuntza garrantzitsua dela bizitzako arlo guztietan. Gure etapara etorrita, 0-6 etapa, oso garrantzitsua da hezitzaileak ondo prestatuta egotea. Zergatik? Haurtzaroa, niretzako, harribitxi bat delako, ongi zaindu, maitatu eta errespetatu behar dena. Haurtzaroa, gure etapa hau, hezkuntzako oinarria da. Beraz garrantzitsu-garrantzitsua da haurraren bidelagunak izango garenok ondo prestatuak egotea, haurrek hoberena merezi dutelako. Hezitzaile prestatu eta formatua da haurrentzako opari onena.

### **Pertsonaren garapenean 0-6 etapa funtsezkoa da. Beraz, etapa horretako hezitzaileen lana biziki inportantea da, ezta?**

Hezitzaileen lana funtsezkoa da haurrak hezteko, hori argi eduki behar dugu. Bidelagunak izan behar dugu, haurren prozesuak akonpainatu behar ditugu, oztopatu gabe. Haurrari bere bidea egiten utzi behar diogu,

mugimendu autonomoa sustatu, gatazkak bideratzen lagundu, espazioak proposatu, materialak eskaini...

Abiapuntua haurra da eta hezitzaileen rola bidelagunak izatea da. Arras garrantzitsua da begiradaren aldaketa; haurrerekiko bidelagunaren begirada izan behar dugu. Oraindik badira batzuk begiradaren aldaketa hori behar dutenak, buruan dutena erakustea eta erakustea baita, eta ez haurrak akonpainatzea. Aise zailagoa da haurrei akonpainatzea bideratzea baino.

### **Hala ere, aski errekonozimendu ba al du etapa horrek, zure ustez?**

Bi zikloak desberdindu egingo nitzuke: 0-3 eta 3-6. Ni lehendabiziko zikloan nago eta ez, ez gaude errekonozituak. Bigarren ziklokoek, 3-6 etapen dauden hezitzaileek, errekonozimendu handiagoa daukate. Birus honek ekarri duen krisi egoeran ikusi da zaintzari zer balio gutxi eman zaion administrazioetatik. Ez dakit Erkidegoan, baina hemen Nafarroan, gure zikloa, zainketena, ez da deus baloratu. Oro har, zaintza ez da baloratzen, eta konfinamenduen kaltetuenak izan dira hain justu zainketa handienak behar dituztenak: haurrak —ezin izan dutelako atera— eta adinekoak —arrikuagatik—. Zainketetan murgiltzen garen pertsonok ez dugu errekonozimendurik gizarte honetan; are gehiago esango nuke, zaintzak ematen ditugunok gutxiago gara gizarte honetan. Eta sinestezina da, zainketa da bizitzaren oinarria eta denok behar dugu. Zainketarik gabe ez gara deus, ez ginateke pertsonak izango. Baina ez gaude baloratuak, eta ikaragarritzko pena da, gizarte bezala. 0-3 etapen lan egiten dugun hezitzaile gehienok izugarritzko ilusioa eta borondatea daukagu, haurtzaroa maitatzen dugu. Baina ikusezinak gara gizartearendako.

### **Hain zuzen, krisi honekin are nabarmenago gelditu da zaintzaren garrantzia.**

Bai, dudarik gabe. Konfinamendu eta krisi honetatik aterako bagina gizar-tearen baloreak aldaturik, eta zainketen munduan murgiltzen garenok baloratuko bagintu, ikasketak handia izango litzateke. Baloratu egin behar

**Printzipio pedagogikoak edukitzea eta barneratzea oinarritzkoa da gure haurrak hezteko. Baina niretzako garrantzitsua da gu, hezitzaileok, nola gauden. Ongi egoten bagara, haurrekin ongi egongo gara.**

da zaintza, oinarritzkoa da bizitzari eusteko.

### **Zuk zeuk egin zenuen 0-6 etapako aditu-tituluko formazioa, bere lehen promozioan. Ondoren zure praktika-rako zer ekarpen eskaini zizun?**

Niretzako plazer hutsa izan zen formakuntza hori egitea. Lehendabiziko promozioan egon ginenak bi pedagogia ikusi genituen: [Emmi] Pikler eta [Loris] Malaguzzi, eta, ondoren, Alvarorekin [Beñaran] formakuntza pertsonala egin genuen. Nik autoreak ezagutzen nituen lehendik ere, baina emaileen ezagutza eta esperientzia berriak ezagutzea niretzat arras garrantzitsua izan zen. Autoreez gain, Kataluniako hainbat esperientzia ezagutzea oso aberasgarria izan zen. Hala ere, garrantzitsua osatu genuen taldea izan zen: pertsonak, historiak, bizipenak, esperientziak, harremanak... familia bat osatu genuen.

Bertze ekarpen handi bat Alvaro Beñaranekin egindako formakuntza izan zen. Sorpresa ikaragarria izan zen hezitzaileon autoezagutza lantzea; berarekin eta taldekideekin aunitz ikasi nuen.

Eta nola ez, akitzeko aipatu nahiko

## EKARPENAK 3: SUSTRAIETATIK AMETSETARA: 0-6 ADITU TITULUA



nuke, ekarpen ikaragarria izan baita nire bizitzan, Joxe Mariaren [Auzmend] zaintza. Nola zaintzen gintuen! Gure zaindaria izan zen. Niretzako hezitzaile batek izan behar dituen balore guzti-guztiak berak zituen. Aunitz ikasi nuen berarekin, eta bere

**[Formazioan ikusiko ditugun] Autore guztiak arras berritzaileak dira. Denek haurra kokatzen dute bere prozesuaren protagonista eta bat egiten dute honako puntu hauetan: haurren irudian, hezitzaileen rolean, ingurunearen garrantzian, naturaren garrantzian, autonomian eta askatasunari ematen dioten garrantzian.**

ilusioarekin jarraitu nahi dut. Bihotz-bihotzetik esker mila Joxe Mari!

**Datorren ikasturtean eraberriturik dator formazioa, eta zeu izango zara bigarren urteko koordinatzailea. Ikasturtean jorratuko dituzuen autoreen arteak, zer nabarmenduko zenuke?**

Autore guztiak arras berritzaileak dira. Denek haurra kokatzen dute bere prozesuaren protagonista eta bat egiten dute honako puntu hauetan: haurren irudian, hezitzaileen rolean, ingurunearen garrantzian, naturaren garrantzian, autonomian eta askatasunari ematen dioten garrantzian.

**Malaguzzi** entzutearen pedagogian murgildu zen eta Reggio Emiliako eskolak sortu zituen. Hasmentan esan dudana bezala, bere pedagogiaren oinarrian haurren irudiarri izugarritzko garrantzia ematen zion. Rebecca eta Mauricio Wildek, Rudolf Steinerrek, Heike Freirek eta Maria Montessorik ere bat egiten dute irudi horrekin. Haurren interesetik abiatzen dira. Malaguzzik zioen haurrek 100 hizkuntza badituztela, baina guk 99 ebasten dizkiegula. Horrez gain, eskolaren irudia ere esanguratsua da: eskola irekiak, gardenak, hurbilak, goxoak, harriduran oinarrituak ziren Malaguzziren eskolak. Espazioa hirugarren hezitzailea dela zioen; bikote hezitzailearen garrantzia

azpimarratzen zuen eta, era berean, talde txikiaren garrantzia; tailerra eta proposamenak; dokumentazioaren eta behaketaren garrantzia; entzutearen garrantzia; familien eta herriaren parte-hartzea nabarmentzen zituen, eta modu orokorrean esanda, sormena, estetika eta erronkak aipatuko nituzke.

**Mauricio eta Rebeca Wildek** Wild pedagogia sortu zuten, hezkuntza aktiboa. Oinarrian, nik errango nuke, bizitza dagoela beraiendako, bizi-prozesuak errespetatzen dituen hezkuntzan sinesten baitzuten. Abiapuntuan haurren beharrak dituen pedagogia da, haurra errespetatzea haren beharrak asetzea da. Malaguzziren pedagogian bezala, hezitzaileak bidelagunak dira, zuzentzen ez duen pedagogia bat da, barne curriculumari garrantzia handia ematen diona. Nabarmenduko nituzke, baita ere, giroaren garrantzia, prestatuak dira, naturako elementuekin hornituak.

**Rudolf Steiner** autoreari dagokionez, helburu nagusia pertsonak askatasunean hezteko zuten. Hezitzaileen autoheziketari eta autozagutzari garrantzi handia ematen zion.

Steinerrek antroposofia sortu zuen, eta horretan oinarritu zuen praktika, beraz, oinarri filosofiko gisa ulertu daiteke, alderdi espiritualetan indarra jarritz; horrek aldeko nahiz kontrako



posturak sorrarazi ditu. Steinerren pedagogiatik honako ideia hauek nabarmenduko nituzke: bizitzarako eskola pentsatu eta gauzatu zuen; haurrek esperientziaren bidez ikasten dutela zioen; etxeko giroa zaintzen zuen; material naturalak lehenesten zituen; jolasari garrantzi handia ematen zion; hezkuntza integrala da, eta prozesuak garrantzia handia du; konfiantzazko harremanak ereiten ditu eta alor artistikoa sustatzen.

**Heike Freire** ere aipatu nahi dut. Udako topaketetan egongo da, eta niretzako autore eta pertsona zoragarria da —une honetan berarekin formakuntza bat egiten ari naiz—. Naturak hezkuntzan duen garrantziaz hitz egiten digu Heikek. Bizitzaz betetako eskolak dira Heikek aurkezten dituenak, bizitza erdigunean jarriko lukeen hezkuntza proposatzen du. Heztea, Heikerentzako, garapen pertsonala naturarekin interakzioan ulertzea eta akonpainatzea da. Naturaren garrantzia defendatzen du: naturak hezten gaitu. Gaur egun naturari bizkarra ematen diogu, baina naturarekin kontaktua berreskuratu behar dugu. Berak erraten du naturarekiko kontaktuak onura handiak dituela, osasun fisiko eta mentalean, haurren garapenean, sormenean, autonomian eta niaren eraikuntzan; konfiantzan hezteko; gure sen naturalarekin konektatzeko; segurtasunean; ongizatean... lurrera itzuli behar gara.

Azkenik, **Maria Montessori**, formakuntzan ikusiko dugun oinarritzko beste autore bat. 30 urte behatzen aritu eta gero bere pedagogia sortu zuen. Haurra subjektu aktibo gisa ikusten zuen, gai den haurra. Montessorik material berezia sortu zuen haurren interesetik abiatuz, haurren autonomiari garrantzi handia emanaz. Oinarri gisa aipatuko nituzke haurra, heldua eta prestatutako ingurunea. Heldua gidari gisa ikusten zuen; prestatutako ingurune ordenatu eta estetikoki sinplea proposatzen zuen, eta helduaren egitekoa behaketa eta haurrari proposamenak aurkeztea izango da. Haurtzaroaren oinarritzko lau arlo finkatu zituen: bizitza praktikoa, oinarritzkoena; sentsoriala;

hizkuntza eta matematika, lau urtetik aitzin. Eta garrantzi handia eman zion edukiari.

Autore guztiak arras interesgarriak dira, eta oso lagungarriak. Gure hezteko moduan hausnarketak egiteko oso garrantzitsuak dira. Autore horien ekarpenak beti dira arras garrantzitsuak, beti, baina bizitzen ari garen momentu honetan are gehiago.

**Praktika zehatzak eta bisitak ere ikusiko dituzue. Zer garrantzi dauka praktika onak bertatik bertara ezagutzeak norbere lana hobetzeko?**

Niretzako teoria eta praktika uzartzeko funtsezkoak dira bisitak. Entzuten dugu eta ikasten dugu... baina, batzuetan, ez badugu ikusten, ez badugu sentitzen, ez dugu bizitzen eta kokatzen nola den pedagogia hori, ez dugu kokatzen geure burua. Niretzako bisitak aukera paregabea dira *in situ* formatzeko, eta bertze esperientziatik hausnartzeko. Taldea sendatzeko eta harremanak sendotzeko garrantzitsuak dira, pedagogia gorpuzteko eta zentzua emateko arras garrantzitsua da beste espazioak eta esperientziak ezagutzea, bakoitzaren lana eraldatzeko.

**Taldeko giroa bereziki inportantea da formazio honetan, zeuk ere aipatu duzu lehendabiziko promozio harta-**



**tik asko balioesten duzula sortu zen giroa. Formatzailleekin ez eze, ikaskideekin ere asko ikas liteke, ezta?**

Formazio honen ezaugarri bat da. Hala formakuntzan nola gure eskoletan eta bizitzan giro goxo batean egoteak ez du preziorik. Denekin eta denengandik ikasten dugu. Talde hezitzailearen garrantzia aipatu nahiko nuke, denok pedagogian sinestea eta bide beretik joatea. Talde egonkorra sortzea eta mantentzea oso garrantzitsua iruditzen zait, gure portaerak zaintzea eta bakoitzak lan pertsonala egitea oso garrantzitsua da. Guk dugu giltza, gure esku dago.

**Entzuten dugu eta ikasten dugu... baina, batzuetan, ez badugu ikusten, ez badugu sentitzen, ez dugu bizitzen eta kokatzen nola den pedagogia hori, ez dugu kokatzen geure burua. Niretzako bisitak aukera paregabea dira *in situ* formatzeko, eta bertze esperientziatik hausnartzeko. Taldea sendatzeko eta harremanak sendotzeko garrantzitsuak dira, pedagogia gorpuzteko eta zentzua emateko arras garrantzitsua da beste espazioak eta esperientziak ezagutzea, bakoitzaren lana eraldatzeko.**

# GALDEIDAZU

## HEZKIDETZAREN MESEDETAN, ESKOLA-KIROLA MISTOA ALA BEREIZIA?

**B**i aukera eskaintzen dituen edozein galderari erantzute-rakoan bezala, hemen bata edo bestea hautatzea espero daiteke, eta horren inguruko justifikazio bat ematea. Baina ez da hori gure helburua, baizik eta hausnarketa eragitea eta, bataren edo bestearen alderdiak aipatuta, hobeto aukeratzeko argumentuak azalratzea. Era berean, gu ez gara kirol-hezitzaileak; aitzitik, hezkidetzan jarduten gara, eta baliteke kirolarekin harreman estua duen atalen batean edo bestean ez sakontzea.

Eskola-kirolaren inguruko eztabaida hau ez da berria, eta irakasle, guraso eta, oro har, hezitzaile-lanetan dihardugun askoren kezka ere badela sumatu dugu azken garai hauetan: kezka eta eztabaida, eta hortik iritziak eta jarduera motak.

Argudioak ematen hasi aurretik, badira mahai gainean jarri nahi genituzkeen hainbat galdera orokor. Esate baterako, eskola-kiroleko partida mistoetan, nork hartzen du protagonismoa? Neskek, mutilek, biek? Edota, kirol-ibilbidean noiz arte izan daitezke taldeak mistoak? Kirol-hezitzaileek jasotzen al dute hezkidetzan oinarritutako heziketarik? Zer lantzen da eskola-kirolean, kirol-arauak ala bestelako balioak? Populazioaren zer ehunekok egingo du errendimenduzko kirola bere bizitzan? Ziurrenik, ez dugu jakingo zein den horietako gal-



**Idoia LUZURIAGA**  
**Miren ARANBURU**

**Hezi2de aholkularitza**  
**zerbitzua**



dera batzuen erantzun zuzena. Kasu batzuetan, nork bere iritzia izango du. Baina lotura zuzena dute guztiek eskola-kirolaren jarduerarekin eta harekiko izan dezakegun hezkidetzajarrerarekin.

Gu Gipuzkoan bizi gara, eta Gipuzkoan aritzen gara nagusiki; horregatik, herrialde horri egokituko gatzazkio eskola-kirolaren ezau-garriak aipatzean, baina, oro har, EAEko beste edozein lurraldetara zabaldu daitezke. Gipuzkoako kirol-sistema osoaren atal nagusietako bat da eskola-kirola, eta Foru Aldundiak eskaintzen du udalekin, ikastetxeekin, federazioekin eta elkarteekin batera. Foru Aldundiaren arabera, “ekintza horren helburua da gure haurrak aktiboak izatea eta kirol-kulturan heztea”. Eskola-umeen heziketa integratzaileari begira, haien nortasuna era armoniatsuan garatzeari begira eta aurreragoko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea bermatuko duen baldintza fisiko eta prestakuntzari begira dagoen sistema da. Ezaugarriei begiratzen badiegu, kirol-programa unibertsala dela azpimarratu daiteke; maila sozioekonomikoa, kirol-maila, aniztasun funtzionala, bizilekua... edozein dela ere, denentzat dela ulertzen da.

Denentzat, sexua edozein dela ere. Bai talde mistoetan, bai mutilen eta nesken taldeetan, arreta berezia jarri da programan, ahalik eta neska



gehien sar daitezten eskola-kiroleko jardunean, sustatzen dutenek azaltzen dutenaren arabera. Atal hau erronka bat da oraindik Gipuzkoako gizartearentzat, baina esan dezakegu Gipuzkoan nesken parte-hartzea oso handia dela beste lurraldeekin konparatuta, Foru Aldundiaren datuek diotenaren harira.

Genero-arraila txikitu egin da azken urteetan. 1990ean, mutilak % 80 eta neskak % 20 ziren; 2015ean, berriz, ehuneko horiek % 58 eta % 42 ziren, hurrenez hurren. Jaiotza-tasa jaitsi arren, lehengoan jarraitzen dute ohiko modalitate guztiek, eta kirol berriak garatu dira eskola-kirolaren programaren bitartez, hala nola surfa, softbola eta esgrima.

Urte hauetan zehar, eskola-kirolean talde bereziak osatzea edo mistoak osatzea etengabeko eztabaida izan da. Eta, horren aurrean, bi ildo eta argudio anitz daude. Nesken parte-hartzea gutxitzea edo gehitzea, batzuen edo besteen protagonismoa partidatan, nesken ahalduntzea, talde-sena edo -sentimendua, kirola egiteko gogoa gutxitzea edo areagotzea, genero-estereotipoak gainditzeko beharra, “maskulinizatuak” dauden kirol-eremuak... Hausnarketarako eta eztabaidarako arrazoi bilakatu dira bataren edo bestearen alde egiteko.

Baina genero-berdintasuna bermatzeko kontuan hartu beharreko irizpide bakarra taldean sexuaren arabera banatuta edo batera aritzea al da? Gure ustez, ez. Berdintasuna bermatzeko, gure eremuan hezkidetza eta hezkidetzaren lan-tresnak abian jartzea beharrezkoa da; hau da, hausnarketa baten ondorioz ikastetxe, herri edota eskualdearen errealtatera egokitutako hezkidetzan oinarritutako programa eta jarduerak garatzea.

Hezkidetza zer den jakiteko, Mari Jose Urruzolak, hezkuntzan eta hezkidetzan aditua izan zenak, emandako definizioa gogoratu dezakegu: “Neskak zein mutilak genero maskulino eta femeninotik aske heztean datza, bakoitzaren indibidualtasunaren garapena sustatuz eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien rolak kontuak hartu gabe”.

Hortaz, genero-estereotipoetatik kanpo egiten den hezkuntza da,

androzentrismoa gainditzen duen heziketa-eredua, eta, heziketa-eredu horretan, neskak eta mutilak ikusi beharrean, askotariko gaitasunak eta abileziak dituzten pertsonak ditugu aurrez aurre. Eta **gaitasunak** eta **abileziak** punta-puntako arloak dira kirolean. Hortxe, bada, gakoetako bat: gaitasunak eta abileziak ez dagozkio sexu bati edo besteari, norbanakoari baizik. Eta baita ere, noski, entrenamendua, jarduera eta praktika egiteko aukera.

### **Bakoitzak du zer egin eta zer esana**

Bestalde, hezkidetzaren gurpilaren atalak ikastetxea eta irakasleak, ikasleak eta gurasoak izanik, bakoitzak badu zer egin eta zer esana. Hori guztia kontuan hartuta, eta eskola-kirola eramaten badugu, aktore ugari duen agertokia agertzen zaigu.

Beste arloetan bezala, eskola-kirolean nesken eta mutilen artean berdintasuna bermatu nahi badugu, egokiena sexu biak elkartzea eta eredu mistoa aukeratzea dela pentsa dezakegu. Horixe da, ikusi izan dugunez, oso hedatuta dagoen ideia. Baina zer diote hainbat azterketatan oinarritutako datuek? Elkarrekin jokatzeko dutenean, protagonismoa mutilek hartu ohi dute, neskek jolasteko duten aukera murriztuz, eta nabarmena da horrek nesken motibazioan eta autoestimuan duen eragin ezkorra. Beste irizpide bat hartuko bagenu, hizkuntza, esate baterako, pertsona guztiak elkartzeak bermatuko al luke guztien parte-hartzea eta ulermen-maila berdintzen dela?

Arlo formal zein informalean dihardugun hezitzaileok genero-gizarteratzearen barne-eragile erabakigarriak garen heinean, balioen transmisioan dugun funtzioari erreparatu behar diogu. Urtez urte eta mendez mendez jasotako heziketa-eredu patriarkal baten ondorioz, gu geu izan gara genero-gizarteratze horren hartzaile nagusiak; hortaz, hainbat esparrutan generoari dagokionez jaso izan ditugun balioen inguruan hausnarketa egin behar dugu, eta hainbat jarrera, ideia zein aurreiritzi sexisten inguruko desikaste-prozesua abiatu beharrean gaude. Hezitzaileok lan pedagogiko handia dugu egiteko gure

**Neskak eta mutilak ikusi beharrean, askotariko gaitasunak eta abileziak dituzten pertsonak ditugu aurrez aurre. Eta horiek ez dagozkio genero bati edo besteari, norbanakoari baizik.**

jarrerren eta ideien desikaste-prozesuan zein balioen transmisioan. Ikasi dugun horren ezinbesteko ondorioak dira gure jarrerak, ideiak eta balioak, baina posible da aldatzea eta gartztea. Jarrera horiek identifikatzen baditugu, lehen pausoa eman dugu eraldaketarako, hots, ezinbestekoa den desikaste-prozesua abiatzeko.

Eskola-kirolari eta, oro har, kirolari dagokionez, lan pedagogiko honetan eragile zuzenak gara guraso, irakasle eta eskola-kiroleko hezitzaileak. Egun, oraindik ere handia da kirol-arloan, beste arlo askotan bezalaxe, estereotipo sexistek duten presentzia eta eragina. Gure hurrek kirola aukeratzeko eta praktikatzeko dituzten jokabideak baldintzatzen dituzte aurreiritzi horiek. Estereotipoz beteriko gizartea dugu gurea. Oraindik ere, diskriminazio-egoera ugari sortzen dira, bai eskola barruan eta baita eskolaz kanpo ere, kontziente edo inkontzienteki.

### **Etiketetik gurasoek egin dezaketena**

Zer egin dezakegu, bada, **etiketik**, gurasotasunetik? Gurasooi ere badagokigu etxeko eremuan desikaste-prozesua abian jartzea eta gure gizartean indarrean jarraitzen duten estereotipoei aurre hartzea. Oraindik ere badira baloak sexu bati soilik oparitzen edo eskaintzen dizkietenak. Baina, horrez gain, beharrezkoa da etxean nesken zein mutilen kirol-jardunari balio bera ematea, eta, horretarako, azken garaian nesken kirolari ematen ari zaion ikusgarritasuna baliatu dezakegu. Guztiok ikusi dugu azkenaldian, adibideak jartzerren, Realeko edo Athleticeko nesken taldeek jokaturako ligari emandako bultzada, eta bide ona da.

### Eskola-kirola bereizia edo mistoa galdetu ordez hezkidetza-plan sendo bat ote dugun galdegin beharko genuke. Berau da berdintasunerako giltza.

Bestalde, kirol-eredu tradizional eta hegemonikoez gure gizartean duten indarra handia bada ere, gure zeregina da beste hainbat eta hainbat kirol-diziplinekiko jarrera aktiboa adieraztea, bai eta neskek zein mutilak egiten duten kirol-aukeraketa askotan ikusezinak diren estereotipo sexisten muga gainditzea. Zer kirol mota sustatzen dugu gure haurren gain? Zer kirolek jasotzen dute gure arreta? Zer partida ikustera joaten gara? Eta, joaten garenean, zer motatako jarrera dugu?

Horrez gain, neskei zein mutili espontaneoki sortzen zaizkien jolasetara jolasten uzteko eta mugimenduak errazteko, logikoa dirudi kirolerako edota mugimenduetarako egokia den arropa janztea. Logikoa dirudiela diogu zeren, askotan, parke eta zabuei begirada bat botatzea besterik ez dago mugimenduak errazten dituzten jantzi eta zapata guztiak erosoak ez direla ziurtatzeko. Zer motatako arroparekin eskalatu dezakete errazago parkeko soketatik?

**Ikastetxean eta irakasleen zeregina** Hezkidetzaren beste eragile nagusia **ikastetxea** eta **irakasleak** direla kontuan hartuta, horiek ere badute zereginik. Eta zeregin honek ikastetxean hezkidetza-plan bat izango litzatekeenarekin harreman zuzena dauka.

Ikastetxean, irakasleek genero-ikuspegia zer den barneratu behar dute, eta horren barnean aritzeko estrategiak landu behar dituzte. Prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez, norbanakotik hasi eta kolektibo osora hedatzeko gai den prozesua abiatu behar da. Prozesu horren abiapuntua “curriculum ezkutua” zer den eta norbanakoaren hezitzaile-jardunean zer eragin duen ulertzean datza. Curriculum formalak esplicitatzen edo zehatz

ezartzen ez dituen alderdi implizituen multzoa da curriculum ezkutua, ikasleengan ideologia, irudikapena, jarrera, balioak, ohiturak eta sinesmenak transmititzen dituenak. Irakasleak, berriz, bere jardunean transmititzen duenak izan dezaken karga sexista identifikatu behar du, eta dagokion zuzenketak egiteko gaitasuna barneratu behar du. Gurasoekin gertatzen den bezala, irakasleek jaso izan duten heziketa-eredu tradizionalaren eragina handia da, eta, horren ondorioz, estereotipoek baldintzatutako joerak agerikoak izan daitezke, askotan edo batzuetan antzeman ere egiten ez dituzten arren.

Genero-ikuspegia oinarri metodologikotzat hartuta, hezkuntza formalaren hainbat arlo eraldatu eta moldatzeko gaitasuna izango dute irakasleek, hala nola neska zein mutilen arteko aukera-berdintasunerako espazioen eta denboren aukeraketa, erabiltzen dugun hizkuntzaren eta komunikazioaren analisisa eta egokitzea, genero-estereotiporik gabeko orientazio akademikoa lantzea, emakumeen errepresentazioa, jai eta ospakizun parekideak programatzeko gaitasuna, etab... Horretarako, noski, berebizikoa da dagozkion baliabideak eskaintzea: denbora, prestakuntza, sentsibilizazioa...

Eskola-kirolean diharduten begirale eta hezitzaileen prestakuntza ere hezkidetza-plan batean kontuan hartzea beharrezkoa da. Hezkidetza-jardunean ikusi dugunez, ez zaie halako prestakuntzarik eskaintzen, eta horrek eragina izan dezake haien hezitzaile-jardunean. Esate baterako, taldeak eta jolasak hezkidetzako ikuspegitik antolatzeke modua erakuts dakieke, hizkuntza berdinzale baten giltzarriak eskaini, eta berdintasunean eredu izateko lan-tresnak zein izan daitezken haientzat ikusgai egin, eta erabilgarri bihurtu. Begiraleak ez du zertan hori aldeztu aurretik egin edo eragin; guztia bezala, irakatsi eta ikasi egiten den zerbait da.

Aztertu eta eraldatu beharreko beste arlo garrantzitsu bat gaur egun eskola-kirolak duen egitura eta antolatzeke eredu da. Zein dira egun eskola-kirolak bultzatzen dituen diziplina nagusiak? Gai al da egungo egitura,

kirol-arlo tradizional hegemonikoez gain, neska eta mutilen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko ahalmena izango duen kirol-eskaintza askotarikoa egiteko? Ba al daude, klasikoak diren kirolez gain, beste batzuk? Kooperatiboagoak akaso...

### Hezkidetza-plan sendoa da bidea

Hortaz, eskola-kirola bereizia edo mistoa galderari erantzun bat emateko gure arteko eztabaida amaigabean sartu beharrean, eskola-elkarte osoaren (familia, irakasle, begirale, ikasle) inplikazioa aintzat hartu behar da gure eskola-eremuan, eta eremu horretan esku hartzeko gai den hezkidetza-plan sendo bat ote dugun galdegin beharko genuke.

Halaber, oraindik ez ditugu irakasleak aipatu. Horrelako ekintza-plan bat abian jartzen denean, behar beharrezkoa da haiei galdetzea, parte hartzeko prozesuak abian jarritz. Espazioak, kirol-diziplinak, iritziak... irakasleek ere baliagarriak izan litezkeen ideia asko izan ditzakete, eta, erabakia edozein dela ere, beharrezkoa da haiekin partekatzea. Senti daitezela eraldaketaren partaide nesken eta mutilen arteko berdintasunerako bidean. Gainera, parte hartzeko prozesu eraginkor baten bidez hartzen den erabakia edozein dela ere, modu egokiagoan txertatu ahal izango dute beren egunerokotasunean, haien iritzia kontuan hartu dela sumatuko baitute.

Bukatu aurretik, esan behar dugu artikulu honetan genero-identitate dikotomikoz aritu garela; alegia, neskez eta mutilen aritu gara, baina ez dugu inola ere aipatu genero-identitateak askotarikoak izan daitezkeela. Gai horrek, ordea, beste artikulu baterako emango luke, eta ez da honen helburua.

Argi dago hezkidetza, oraingoan ere, berdintasunerako giltza estrategikoa dela. Eta *Hezkidetzan Esku Hartzen* EHUKo ikastaroan ikusi genuen bezala, zuen herrian, ikastetxean edota ingurunean bi eredu horien arteko erabakia hartu aurretik egoera hezkidetzaren ikuspuntutik landu nahi baduzue, gogoratu A, E, I, O, U hezkidetzaren gakoak: **aliatuak, esperientzia, informazioa, oraina eta umorea.**



# ARGITALPENAK



**BAGINEN**  
Ciria Crespo

## TXALAPARTA

Izan ginela badakigunez, nor izan gin-en eta zer egin genuen galdetu behar. Horiei erantzun nahian, artxibo lan zorrotza egin dute Ciria Crespo historialariak eta Elena Ciordia ilustratzaileak kutsu literarioko azterlan hau eraikitzeko. Historiaurretik abiatu eta gure garaira arte, 50 emakume baino gehiago aurkezten dizkigute.



**EULI FIRIRIREN FESTA**  
Eva Mejuto - Sergio Mora

## KALANDRAKA

Errusiako herri ipuinean oinarritutako liburu honetan Firiri euliak etxetxo bat egiten du eta ingurukoak gonbidatzen ditu bere etxean jatera. Banaka-banaka iristen dira kakalardoa, saguzarra, apoa, hontza, azeria eta otsoa. Denak elkarrekin mahaian eseri eta gosea berdintzera doazenean, hartza azalduko zaie.



**EDURNE ZURI ETA IPOTX ALAIK**  
Jasain- Maria Pinku

## SAURE

Saure argitaletxeak *Mitoipuinak* izeneko bilduma berri bat sortu du eta bertako lehen liburua da hau. Edurne Zuri ezkondu eta zazpi urtera kokatzen da ipuin berri hau. Amaordeak maltzurkeriatan jarraitzen du eta ipotxek aurre egitea lortuko dute munduan zehar dituzten beste ipotx-en eta lagun-en laguntzarekin.



**KUTSALDIAN**  
Paolo Giordano

## EREIN

Edizio digitalean argitaratu du Erein-ek liburu hau, koronabirusak ekarri duen krisiaren erdian. Egileak pandemiaren garai honetan bizi garen mundu konplexuaren inguruko hausnarke-ta egiten du, besteak beste dinamika sozial eta politikoak, pertsona arteko harremanak, alderdi psikologikoak barne, eta gure mundu global eta interkonektatua ditu aztergai.



**IKT-AK ETA KOMPETENTZIA DIGITALAK HEZKUNTZAN**  
Zenbaiten artean

## UEU

EHUrekin elkarlanean argitaratutako liburu honetan IKTen alorreko 32 adituk aztertzen dutena zera da: teknologiaren erabilera nola uztartu irakasteko praktiketan eta ikasteko prozesuetan. Uztarketa horretan begirada kritikoa izatea garrantzitsua dela azpimarratzen dute liburua banatzen den zazpi ataletan zehar.



**BIZITZAK ERDIGUNEAN**  
Zenbaiten artean

## EUSKAL HERRIKO KOORDINADORA FEMINISTA

Covid-19aren krisiari eta neoliberalismo patriarkal eta kolonialari aurre egiteko proposamenekin dossier bat plazaratu dute Euskal Herriko talde feminista ezberdinen ekarpenak jasoz eta bateratuz. Horrela, zaintza krisiaren aurrean, diagnostikoa egiteaz gain, proposamenak planteatu dituzte.

# PROPOSAMENA

## Emariak karta-jokoa

Emakume erreferenteak bistaratzeko tresna

Arrazoi bategatik edo bestegatik erreferenteak izan diren emakume asko daude, baina apenas ezagutzen diren. Kalaka egitasmoak emakume horiek bistaratzeko eta ezagutarazteko Emariak karta-jokoa sortu du. Emakume erreferenteak ezagutzeko aukera luzatzeaz gain, hezkidetzan hezteko eta bizitzeko baliabide berri bat jarri du denen eskura.



Urtebete lehenago *Emariak* liburua argitaratu zuen Kalakak eta bertan historian zehar lorpenak egin dituzten 12 emakumeren biografia osatu zuen. Karta-jokoak lan hura osatu eta aberasten du, erabilera aukerak zabaltearekin batera. 40 kartekin, modu dinamiko eta pedagogikoan askotariko ekarpenak egin dituzten emakumeen historiak ezagutzeko aukera ematen du. Isilarazitako emakumeak eta haien lorpenak bistaratzeko, beste emakume askorentzat errefe-

rente izan daitezkeelako. Hori uste dute Ilazki Gainza eta Nerea Uria egileek, “erreferenteek beti ematen digute besteoi amesteko, noizbait izan nahi dugun hori irudikatzen eta inspiratzeko bidea, eta horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua emakumeak lehen lerroan kokatzea”.

Izan ere, erreferente maskulino gehiago daude ia gehienetan buruan, liburuetan, kalean, eskolan, komunikabideetan eta abar. “Emakumei buruzko erreferentziak ez daude eskura eta guk lehen lerrora ekarri nahi



izan ditugu, informazio hori eskura jarritz”, azaltzen dute egileek. Garrantzitsua iruditzen zaie emakume erreferenteak txikitatit ezagutzera eta helduei ere baliabideak eskaintzea, “beste era batera ikasi ez dituzten emakume horien berri izan dezaten eta txikiei transmititzeko aukera izan dezaten”.


Horrek ez du esan nahi gizonezko erreferenteak ahaztu eta albo batera utzi behar direnik, baizik eta emakumei ere haien lana errekonozitu eta ezagutzeko aukera eman behar zaiela. “Esan bezala, emakume erreferenteak ezagutzeak gainerakoei beren bideak irekitzen laguntzen die. Lehenago emakumeak alor jakin batean aritu direla ikusteak beste emakume batzuk animatu ditzake”, eta gizonezkoek ere emakume erreferenteen berri izatea garrantzitsua da. Jakitea, gainera, emakume horiek arlo askotan izan direla erreferente. “Bai, zeren agian arlo jakin bateko emakumeak ezagutzen ditugu, baina arlo guztietan daude ekarpenak egindako emakumeak, eta oro har, gure jakintzaren osotasunean ezezagunak zaizkigu”, ondorioztatzen dute Gainzak eta Uriak. Horregatik, karta-jokoak agerian uzten du emakumeak betidanik egon direla arlo guztietan, batzuetan zapalduago bestetan libreago, baina hor.

### Jokorako aukera ugari ditu

Euskaraz sortua eta pentsatua izan den karta-jokoak 40 karta ditu: mundu guztiko 39 emakume erreferente eta komodin bat. Emakumeak hironaka bilduta daude, hirukote bakoitzak kolore bat duelarik. Arlo askotariko emakumeak agertzen dira: dantzariak, pintoreak, biologoak, pedagogoak, idazleak, kirolariak, etxekoandreak, lanbide maskulinizatueta ibili diren edo oraindik dabiltzan emakumeak...

Modu batean baino gehiagotan jolastu daiteke kartekin: familiak osatzera, kartetan agertzen diren emakumei buruzko galderak egitera eta abar. Karta-sortarekin batera, poltsatxo batean liburuxka bat dago eta bertan esplikatzeko dira joko horiek denak. Adinaren arabera proposatzen diren jokoak desberdinak dira. Esate baterako, irakurtzen ez dakiten haurrak koloreetan oinarritu daitezke jokatzeko. Liburuxkan adin desberdinekoentzako denbora-pasak ere badaude: labirintoa, izen-abizenak emakumearen irudiarekin lotzea, letra-zopa...

Karta-jokoaren poltsatxoa edonora eramateko modukoa da, eta liburuak ez bezala, karta-jokoak behin eta berriz erabiltzeko aukera ematen du, emakumeen istorioak, ekarpenak eta lorpenak behin eta berriz mahai



### Emariak karta-jokoa

40 kartako karta-jokoa: mundu guztiko 39 emakume erreferente eta komodin bat. Emakumeak hironaka bilduta daude, bakoitzak kolore bat duelarik. Liburuxka bat ere badu: hainbat karta-joko esplikatzeko dira eta denbora-pasak ere badaude.

### Non eskura daiteke

[www.kalaka.eus](http://www.kalaka.eus)

gainean jartzeko aukera gehitzen du. Erreferentzia horiekin gehiagotan topo egiteko bide ematen du, haietaz behin eta berriz hitz egiteko parada. Azken finean, xedea da egunerokotasunean emakumezko erreferenteei lekua egitea, haien lorpenak aitortzea eta beste batzuei ere bidea irekitzea.



# ATZEKO ATETIK



## ZAINDU BEHAR ZAITUEN HORI

**BIRKITE ALONSO** MUSIKARIA ETA IRAKASLEA

**B**izi dugun egoera honetan nire identitatea osatzen duten horien artean (irakasle-sortzaile-ama) lotuko lituzkeen hitz bat izendatu beharko banu, zaintza hitza litzateke.

Une honetan hitz horrek definitzen du nire egunerokoa, eta aurrera egiteko energia eta ilusio nahikoa ematen dit; era berean, nire denbora inbaditzen du eta ia ahaztuta dudan independentziaz gabetzen nau.

Irakasle bezala ikasleak zaintzeaz arduratu ginen hasieratik; gelan agertzen nuen ardurara, errutinari nahi gabe higitzen zitzaidan zeregin baliotsu hori etxetik landu behar izan dudanean nolabaiteko berpiztea gauzatu da, etxerako lan hutsa bidali beharrean bideokonferentziak haiek ezagutzeko eta egoera honetan laguntzeko tresna bihurtu direnean. Irakasle izateak dakarren psikologiamekanismoa martxan jarri da konturatu gabe, bakoitzaren behar akademiko zein pertsonalei egokitu naizenean. Astero nerabearen aurpegia eta jarrera irakurritak galdetzen hasi naizenean: nola zaude, amorratuta? eroso? Urduri? Zer botatzen duzu faltan? Zelan familiarekin? (batzuk gurasoak ezagutzen hasi dira, ez pentsa), liskarretan ibili al zara neba-arrebarekin? Zerbait positiborik ikusten al diozu egoera honi, pertsonalki eta gizartearen? Eta lurra, sendatzen ari al da? Nola daude

aitona-amonak? Zerbait egiten ikasi al duzu azkenaldian? Eskolara itzuli nahi zenuke? Kezkatzen al zaitu kurtso-amaierak eta graduazioak? Irakaskuntzan emandako 15 urteetan ez dut horrelakorik bizi, ezta aurrez aurreko tutoretzetan ere. Benetan behar zaituztenaren sentsazioa, agian beste inori kontatu ez dioten zerbait askatzean ondoan egoteko aukera.

Ama bezala zaintza ohikoagoa izan bada ere, denboran luzatu egin da, noski. Egunean 12 ordu beraiekin egoteko indarrak nonbaitetik atera beharra daukagu eta gure buruarentzat apurrak gorde. Gaur azkenik kalera irten ahal izan gara jolastu eta aireatzera, eta aukera beranduegi heldu denaren sentipena daukat. Dagoeneko galdu dute hasierako patxada, etxekoekin egoteak zekarren ziurtasuna eta poza, azken bi asteetan azaleratu den amorrua eta urduritasuna neba-arreben harremanean islatu denean, baita gugana zuzentzeko moduan edo eguneko zereginak betetzeko gogoan ere. Ez dut uste kalean ordu betez egoteak dagoeneko hori konponduko duenik.

Bestetik, haiekin ere irakasle eta psikologo lanean aritzeaz gain, aisialdi-monitore bihurtu gara, edo bihurtarazi gaituzte, uneoro entretenitu behar zirenen mandatuari obedituz. Beste gurasoek egiten badute, guraso txarra izango naiz ordubete sofan botata ematen

badute, edo bideo-jokoetan egunero uzten badiet. Inork ez digu azaldu bideo-jokoetan tartetxoan aritzea haien ihesbidea izan daitekeela, edo lagunekin hitz egiteko aukera, ez dakit zein pertsonaia lortu dutela kontatzeak harro sentiarazten dituela, eskola edo kiroltako eguneroko lorpen txikiak faltan dituztenean.

Azkenik, sortzaile izanda ere nahiko egoera bitxian aurkitu gara zaintzan oinarritutako hartu-eman beharrezko honetan. Sormen-lanak, zuzeneko emanaldiak etab.. ezinbestekoak bihurtu dira herritarrentzat, bestelako aisialdiaren ausentzian. Horrek agerian utzi du zein beharrezko ditugun bai kultura bai kulturagileak, eta ikusi dugu oinarri ekonomiko eskasa dela gaur egun sortzaileari eskaintzen zaiona, bereziki sorkuntza eta haren zabalpena diru-iturri nagusitzat dutenezat baina baita lanaldi murriztu baten osagarri dugunontzat ere. Antolatze beharra dugu, gobernuaren aldetik babesa behar dugu, baita kulturzalearen eskutik ere. Greba digitalera eraman gintuen honek guztiak eta, pentsatu nahi dut, erantzun bat jasoko dugula; enpatia hori gauzatuko duten neurriak hartuko direla eta gure lanari merezi duen balioa emango zaiola.

Azken finean, zaintza baita gizarte moduan egoera honetatik aterako dugun onura. Elkar zaintzearen beharra izan liteke egoera honetara heldu izanaren arrazoia.



Jaso urtean lau zenbaki,  
20 €-ren truke

# Hazi Hezi

haziera eta heziketa  
aldizkaria



**Hazi Hezi** eta **hik hasi**  
familia eta eskola  
heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)



# hik hasi laborategia

COVID-19aren ondorengo eskola pentsatzen eta gauzatzen

## COVID-19ak eragin duen krisia eskola hobetzeko baliatuko dugu ala atzerapausoak emateko?

### Lehen mintegia: balioak hezkuntzaren ardatz

#### - Zaintza. Zaintza hezitzailea da

**Nora Salbotx**, Amaiurko herri eskolako maistra eta zuzendaria  
(maiatzaren 11tik 14ra)

#### - Askatasuna. COVID-19aren ondoren askatasunaren pedagogiaz

**Ane Ablanedo**, NUPeko eta Baionako unibertsitateko irakaslea  
(maiatzaren 14tik 21era)

#### - Natura. Naturan heztearen garrantziaz

**Heike Freire**, pedagogia berdeetan aditua eta formatzailea  
(maiatzaren 21etik 28ra)

### Bigarren mintegia: baliabideak eta metodologiak aztergai

#### - Teknologia digitalak hezkuntzan: aldaketarako aukera baliatzen

**Amaia Arroyo-Sagasta**, HUHEZIKo irakaslea  
(maiatzaren 19tik 26ra)

#### - Etxerako lanak

**Joxe Amiama**, EHUko irakaslea, etxerako lanetan doktorego tesia  
(maiatzaren 26tik ekainaren 2ra)

#### - Ebaluazio hezigarria

**Irene Lopez-Goñi**, NIEko pedagogia arduraduna  
(ekainaren 2tik 9ra)

### Hirugarren mintegia: familia eta eskola

#### - Emozioak kontuan izango dituen eskola eta etxea

**Nerea Mendizabal**, Komunikazio Ez Bortitzeko formatzailea  
(maiatzaren 28tik ekainaren 4ra)

#### - Helduaren rola, inoiz baino garrantzitsuagoa denean

**Alvaro Beñaran**, psikomotrizista, ASEFOP elkarteko lehendakaria  
(ekainaren 4tik 11ra)

#### - Familia eta eskola berkokatzen, pedagogia sistemikoaren ikuspuntutik

**Aitziber Esnaola eta Larraitz Mendizabal**, sistemikoko formatzaileak  
(ekainaren 11tik 18ra)

- Mintegi bakoitzaren prezioa: 65 euro hik hasiko harpideek; 70 euro prezio arrunta.

- Ikastaro bakoitzaren prezioa: 25 euro harpideek; 30 euro prezio arrunta.

- Ikastaroaren formatua: online (berariaz HIK HASIraiko sortutako bideoekin, emailek hautatutako testuekin eta zuzeneko solasaldia emaileekin. Materiala egun batzuk lehenago bidaliko zaie ikasleei. Teoriko-praktikoa izango da.

- Zuzeneko saioak 15:00etatik 16:20era izango dira.

www.hikhasi.eus